

Memoria Integratua EGE/IEFE¹

2019



Edukia

Zuzendari Nagusiaren Gutuna **3**

1. EiTBren Aurkezpena **4**

Negozio-eredua	5
Enpresa-egitura	6
Eskaintza eta zabalkundea	7

2. Jasangarritasuna EiTBn **9**

Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren kudeaketa integratua	10
Materialtasuna eta interes-taldeekiko harremana	14
Balioa sortzeko prozesua	17

3. Enpresa **18**

Erakunde-kultura	19
Audientzia	21
Ekonomia-juardera	20

4. Gobernu Korporatiboa **35**

Gobernu-organoak	36
Plangintza estrategikoa	37
Estilo Liburua	39
Arriskuen kudeaketa eta betetzea	40
Kontrol-organoak	42

5. Pertsonen Ardatza **44**

Giza lantaldea	45
----------------	----

6. Herritarren Ardatza **65**

EiTB MARATOIA	67
Komunitatearekiko harremana	67
Giza Eskubideak	74

7. Euskararen Ardatza **75**

Euskara	76
---------	----

8. Euskadi Munduan Ardatza **83**

Nazioarteko proiektzioa	84
Audientziei buruzko txosten orokorra	87

9. Ingurumenaren Ardatza **90**

Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa	97
Ingurumena: edukiak eta eragina	101

10. Memoriaren Alderdi Arauemaileak **102**

Eranskina: GRI informazio osagarria **111**

Zuzendari nagusiaren gutuna

Ongi etorri 2019ko gure memoria integratura. EiTBk 2016ra arte argitaratzen zuen jasangarritasun-informazioa integratzearen emaitza da edizio hau. Informazio Ez Finantzarioaren Egoera gisa argitaratu zen 2018an, legeriaren aldaketen ondorioz. Memoria honen bidez, EiTBk bere gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-jardueraren berri eman nahi dio gizarteari, kudeaketa-txostenari Informazio Ez Finantzarioaren Egoera gisa gehitzen zaion dokumentu berean.

2019an ezagutu ditugu gizarteak EiTBri buruz duen pertzepzioaz Eusko Legebiltzarrak sustatutako hainbat azterlanen emaitzak eta ondorioak. Emaitzak oso onak dira: komunikabideari eta bere profesionalei babes handia ematen zaiela erakusten dute, eta, aldi berean, emaitza horiek eskatzen digute zerbitzu publiko gisa dugun konpromisoari eutsi diezaiozun eta transformazio digitalaren esparruan beharrezkoak diren urrats guztiak egin ditzagun, etorkizun hurbilean garrantzitsuak izango bagara.

Memoria honetan alderdi estrategikoak eta helburuak lortzeko dugun ikuspegia islatu dira. GRI (*Global Reporting Initiative*) erreferentzia-esparrua erabili dugu, aurreko edizioetan bezala, iruditzen zaigulako tresnarik erabilgarrienetako bat dela gure estrategia jasangarritasun-kudeaketako sistema batekin lerrokatzeko, bide onetik goazen ala ez ebaluatzeko aukera emango diguna.

Memoria hau urteko kontuekin eta programa-kontratuaren betearazpen-txostenarekin batera aurkezten da. Horien bidez, Zerbitzu Publikoaren gure misioa eta helburu estrategikoak nola garatzen ari garen jakin daiteke. Gobernantza oneko ariketa da, eta gizarteari zor diogun betebeharra.

Memoria integratua enpresa independente batek egiaztatzen du; beraz, hemen aurkezten den informazioa benetakoa, objektiboa eta kontrastatua da. EiTBren kudeaketan sakontzeko interesa duen pertsona edo erakunde ororentzat erabilgarria izatea nahi genuke.

Maite Iturbe Mendialdua
EiTBko zuzendari nagusia



EiT Bren Aurkezpena

EiTBk informatzea eta gizartean espiritu kritikoa sustatzea ditu helburu. Horretarako, informazio, dibulgazio- eta entretenimendu-aukera erakargarria eta kalitatezkoa eskaintzen du, eta, aldi berean, euskal kultura eta euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzen ditu.



1. EiTbren Aurkezpena

Negozio-eredua

EiTB (Euskal Irrati Telebista – Eusko Jaurlaritzaren mendeko komunikazio-talde multimedia da, [Eusko Legebiltzarrak 1982an sortua](#). Autonomia Estatutuaren 19. artikulua babesean, izaera publikoko ikus-entzunezko komunikaziorako erakunde propioa eskatzen zuen gizartearen eskaerari erantzuten dio EiTBk².

Enpresa publiko eta komunikabide gisa, EiTBren zeregina da bere zerbitzuak euskal gizarteari eskaintzea; horregatik, oso gogoan du eragin handia izatea dagokiola eta rol garrantzitsua bete behar duela maila sozialean nahiz instituzionalean.

Hori dela-eta, gizarte demokratiko baten eskakizunen arabera eta bere oinarritzko printzipioen arabera, EiTB Taldeak bereziki zaintzen ditu bizikidetzaren balio zibikoaren defentsa eta sustapena, berdintasunaren eta aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoaren printzipioekiko errespetua, euskal kulturaren eta hizkuntzaren sustapena eta gazteen eta haurren babesa eta sustapena.

EiTBk 145 milioi euroko aurrekontuarekin (2019) kudeatzen ditu gaur egun telebista, irrati eta Internet bidezko komunikabideak. Horretarako, Bilbon –egoitza nagusia bertan dago–, Donostian eta Gasteizen kokatutako hiru egoitzatan lan egiten du, eta 4 ordezkaritzatan –Iruñean, Baionan, Bartzelonan eta Madrilan–. Era berean, korrespontsalia-sarea du Amerikan, Asian, Europan eta Ekialde Hurbilean.

Audientzia- eta prestigio-mailatik harago, EiTBk informazioan eta gaurkotasunean duen lidergoari eusteko jarduten du, profesionaltasun- eta deontologia-printzipioak zorrotasunez betez, sinesgarritasunean oinarritutako informazio-erreferentzia izateko. Horrez gain, lehen mailako konpromisotzat ditu euskaldunei euskarazko eduki-aukera guztiak eskaintzea eta halakoen erabileraren normalizazioa sustatzea.

Azkenik, eta etengabe aldatzen ari den gizarte hiperkonektatu baten testuinguruan, EiTBk apustua egin du plantilla osatzen duten 1.182 pertsonen transformazioaren, ongizatearen eta prestakuntzaren alde, haien gaitasunak hobetzeko eta lantaldea proiektu partekatu batera bideratzeko.

2 19.-1 art. Euskadiri dagokio gizarte-hedabideen arloan Estatuaren oinarritzko arauen lege-garapena, betiere Konstituzioaren 20. artikulua xedatzen duena errespetatuz. 2. Aurreko paragrafoak aipatzen dituen gaiotan betearaztea Estatuarenarekin koordinatuko da, Estatuaren titulartasuneko hedabideei ezgarri zaien arauteria bereziari dagokionez. .

1. EiTBren Aurkezpena

Enpresa-egitura

EiTB herri-erakundeak prozesu eta jarduera korporatiboak kudeatzen ditu eta, edukiak ekoizteko, % 100eko partaidetza du lau sozietate anonimo unipertsonaletan: Euskal Telebista, S.A.U. (telebista); Eusko Irratia, S.A.U. eta Radio Vitoria, S.A.U. (irratia); eta Eitbnet, S.A.U. (Internet).


Nolanahi ere, transformazio digitalak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko, prozesuak, profil profesionalak eta antolakuntza-profilak sakon aldatu behar dira, eta, horren ondorioz, EiTBk sozietate-integrazioarako prozesu bati ekin dio, bere egitura antolaketa-eredu berri batera egokitzeko.

Sozietate-integrazioa, hasiera batean, izaera juridiko-sozietarioko eragiketa bat da, enpresa-egitura lan-prozesu berrietara egokitzeko eta 2020an gauzatuko da ondorio guztietarako.

Prozesu horrek, berez, ez dakar inolako aldaketarik lan-egituretan, lantaldeetan, prozesuetan eta eragiketetan. Hala eta guztiz ere, komunikabide multimediek aro digitalean behar dituzten aldaketak legegintzaldi berrian egitea aurreikusi da.

Gaur egun, EiTB Taldea osatzen duten sozietateak hedabidearen arabera banatzea –telebista, irratia eta sarea– ez da funtzionala. Horregatik, aukeratu den ereduari, EiTB herri-erakundeari eutsiko zaio, kudeaketa korporatiboko prozesuak kokatzeko, eta, xurgapen-prozesu baten bidez, sozietate anonimo unipertsonal guztiak bakarrera murriztuko dira.

Eragiketa hori Eusko Irratia, Radio Vitoria eta Eitbnet Euskal Telebistan integratuz gauzatuko da, eta sozietate berriari izena aldatuko zaio. Eragiketaren ondorioz, herri-erakunde batek eta sozietate anonimo bakarrak osatuko dute EiTB.



Eskaintza eta zabalkundea

EiTbren eskaintzan, euskal gizartean bertan sortutako edukiak dira azpimarragarri. Horien bidez, euskararen erabileraren normalizazioa bultzatzen da; hurbilekoari ematen zaio garrantzia, ikuspegi bakarrarekin tratatuz, eta gizarte-kohesioari laguntzen zaio.

Eduki guztiak sortzeko eta zabaltzeko, Taldeak eduki-aukera zabala eskaintzen du bere telebistaren, bere irratiaren eta Interneten bidez. Eduki horiek sormenaren eta gizarte-kohesioa bultzatzen duten balioen arteko oreka mantentzen dute. Hona horietako batzuk:

- Demokraziaren, bizikidetzaren eta Giza Eskubideen defentsa.
- Berdintasunarekiko eta aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoarekiko errespetua.
- Elkartasuna eta gizarte-garapena..
- Ingurumenarekiko errespetua eta ingurumenaren zaintza.
- Duintasuna eta pertsonen ohorearekiko eta izen onarekiko errespetua.
- Prestakuntza, esfortzua eta hobetzeko grina.

Beraz, EiTbK konpromiso sendoa hartu du informazio multimediaren eskaintza kalitatezkoa lortzeko, eta eskaintza horren ezaugarriak sinesgarritasuna, objektibotasuna eta aniztasuna izango dira. Erakundearen funtsezko zeregina da EiTbK albistegietan korporazio multimedia lider gisa duen posizioari eustea, mundu mailan presente dagoen lehen mailako eskaintza profesionalarekin.



1. EiTBren Aurkezpena

Enpresa-partaidetzak

Taldeak partaidetza dauka irabazi-asmorik gabeko entitate hauetan:



Expressive, S.L. merkaturatze-enpresa honen espezialitateak dira publizitatearen merkatua eta komunikazio-enpresekin lotutako produktu eta zerbitzuak. Bilbon du egoitza. EiTBk bazkide minoritarioaren % 25eko akzio-partaidetza du. Gainerako % 75a akziodun pribatuena da.



Euskadi Kirola Fundazioa Basque Team kudeatzen du; Basque Team-en egitekoa, hain zuzen ere, goi-mailako euskal kirola sustatzea da, kirolariei ordezkartza eskainiz nazioarteko lehiaketa gorenetan. EiTBk eta EAEko Administrazio Orokorrak % 50ean parte hartzen dute Fundazioaren kudeaketan.



Vicomtech Donostiako Miramon Parke Teknologikoan dago. Ikerketa-fundazio honek adimen artifizialean eta konputazio eta interakzio bisualeko sistemetan espezializatutako zentro teknologiko bat dauka. Basque Research & Technology Alliance sarean dago. EiTBk eta Alemaniako INI GraphicsNet taldeak eratu zuten. Gaur egun, EiTBk eta Euskal Telebistak osatzen dute haren patronatua, beste hamasei erakunderekin batera.

EiTB, gainera, **Guggenheim-Bilbao Museore**n, **Bilboko Arte Ederren Museore**n, Donostiako **San Telmo Museore**n eta **Euskalit Kudeaketa Aurreratuaren** patroia da. Era berean, Gasteizko **Artium Museore**n enpresa ongilea da.

GUGGENHEIM BILBAO



BILBOKO ARTE
EDER MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO



EiTB, komunikabide-zerbitzu publikoa den aldetik, **Irrati Telebista Autonomikoen Erakunde**n **Federazioko (FORTA)** kide da, eta, erakunde horretatik, komunikazio- eta harreman-jarduerak lantzen ditu Estatuko sistema arauemaileko komunikabideekin eta erakundeekin.

Horrez gain, **CIRCOM (Eskualdeko Telebisten Europako Elkarte)**ko kide da, zeina, beste funtzio batzuez gain, ikus-entzunezko gaietarako Europako Batzordearen erakunde aholku-emailea baita.



Jasangarritasuna EiTbN

Taldearen Gizarte Erantzukizuna konpromiso bat da, kudeatzeko eredu jakin batekin lotzen duen konpromisoa, hain zuzen, euskal gizarteak egindako inbertsio ekonomikoak bai komunikazio-eskaintzan bai herritarrekin eta gizarte-eragileekin harremanetan jartzeko moduan nahitaezko itzulera bat egon behar dela ulertzen duen kudeaketa-ereduarekiko konpromisoa.



2. Jasangarritasuna EiTbN


Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren kudeaketa integratua

EiTbK sozialki arduratsua den kudeaketa baterantz bideratzen ditu bere estrategiak eta helburuak, eta garapen jasangarriaren alde lan egiten du, bai erakundeari eta bai gizarte osoari begira. Ikuspegi hori zeharkako errealitate gisa aplikatzen da erakundearen prozesu guztietan.

Gobernantza arduratsuaren printzipioak aplikatuz eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikak garatuz, EiTbK *entzute aktiboko* harremana izan dezake bere interes-taldeekin. Ildo horretatik, Taldearen GEKaren ikuspegiak alderdi hauek hartu ditu ardatz:

EiTbren Gizarte Erantzukizun Korporatiboa

Taldearen gizarte-erantzukizun korporatiboaren ikuspegiak honako alderdi hauek ditu ardatz:



2. Jasangarritasuna EiTbN

EiTbren harremana Garapen Jasangarrirako Helburuekin

EiTbK babesten dituen kanpoko beste ekimen batzuen artean, UNESCO Etxearekin³ (Euskadiko UNESCO Zentroa) lankidetzan dihardu, eta konpromisoa hartu du Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren Helburuak Euskadin zabaltzeko eta euskal herritarrek irratia eta telebistaren bidez kontzientziatzeko. Edukiekin eta haiekin lotutako kanpainei buruzko informazio guztia biltzen duen gune bat sortu zen webgunean, lan-tresna gisa.

17 GJHak irratiko 17 edukitan aurkeztu eta zabaldu dira, Euskadi Irratiko "Goiz Kronika"n eta Radio Euskadi-Radio Vitoriako "Vivir para Ver" programan. Horrez gain, Agenda 2030i buruzko edukiak sartu dira programazioaren barruan eta ETBko albistegietan, eta helburuei buruz kontzientziatzeko 17 bideo zabaldu dira.



3. lankidetzan hori 2018ko martxoan hasi zen, EiTbko 'Eman HEZKUNTZAKO minutu 1' lehiaketaren sari-banaketan. Bertan, 4. GJHaren bideoa aurkeztu zen; helburu horren xedea da hezkuntza inklusiboa eta kalitatezkoa lortzea pertsona guztientzat.

2. Jasangarritasuna EiTBn

EiTBren harremana Garapen Jasangarrirako Helburuekin

GJHak zabaltzeaz gain, EiTB taldeak ekarpen garrantzitsuak egin ditu helburu horiei begira. Komunikabideen sektoreko herri-erakundea denez, eragin nabarmena du honako arlo hauetan⁴:



Genero-berdintasuna

EiTBk berdintasunaren eta aniztasunaren integrazioa babesten du bere plantillari dagokionez, eta aukera berak eskaintzen dizkie pertsona guztiei, EiTBren Etika eta Jokabide Kodean berretsita dagoenez. Era berean, konpromiso sendoa du arazoaz informatzeko eta emakumeei ikusgarritasuna emateko, desberdintasunak errotik kentzea helburu.



Lan duina eta hazkunde ekonomikoa

EiTBk kalitatezko enplegua sortu behar du, eta baldintzarik onenak eskaini behar ditu bere langileen garapenari dagokionez. Gazteen prestakuntzan inbertitzen du, eta babes sozialerako eta oinarritzko zerbitzuetarako sarbidea eskaintzen du; prerrogatibarik gabeko baldintza-berdintasuna bermatzen du; eta gizarte-kohesioa ziurtatzen du kalitatezko informazioaren bidez eta euskal hizkuntza eta kultura sustatu eta zabalduz.



Kalitatezko hezkuntza

Hasiera-hasieratik, EiTBk balio sinboliko handia izan du, eta prestigioa eman dio euskarari; hori funtsezkoa izan da euskaraz informatu, hezi eta entretenitu daitekeela erakusteko. Ildo horretatik, EiTB oso lagungarria izan da hizkuntzaren garapenean, euskararen normalizazioa sustatu eta bultzatu duelako gero eta elebidunagoa den gizarte batean. EiTBk, gainera, mundu akademikoarekin akordioak egiteko helburua du prestakuntza duala garatzeko, ikastetxea eta enpresa-mundua benetan konbinatzea lortuz, batez ere ikus-entzunezkoen sektorean. Azkenik, haurrentzako euskarazko eskaintza bat finkatzeko prozesuan dago, balioetan oinarritua, gure komunitatearentzat ezinbestekoa den publiko batentzat.

4. Garrantziaren hurrenkeran jarri dira, materialtasunari buruzko azterketarekin bat..

2. Jasangarritasuna EiTbN



Industria, berrikuntza eta azpiegitura

EiTBk teknologia-produktuetan inbertitzen du eraginkortasuna areagotzeko eta zerbitzu digitalak hobetzeko, pertsonak hobeto konektatuta egon daitezen; bestalde, berrikuntza sustatzen du, estrategia digitala inplementatzeko beharrezkoak diren trebetasunak garatuz. Horretarako, hain zuzen ere, bere azpiegitura digitalak baliatzen ditu edukiak argitaratzeko, herritarrek zerbitzuaz behar bezala gozatu ahal izan dezaten.



Klimaren aldeko ekintza

Ingurumenaren babesaren eta kontserbazioaren alde lan egiteko epe luzerako konponbide berritzaileak bilatzeaz gain, EiTBk konpromiso sendoa du ingurumenarekin, eta hori bere strategiaren barruan dago. 2019-2022 Ingurumena Hobetzeko Planari esker, kudeaketa-sistema integratu bat garatu du, kudeaketa eta kontsumo arduratsurako ekintzak zehaztuta dituen, eta energia-efizientziaren hobekuntzan eta karbono-isurien murrizketan inbertitu du. Komunikazio-talde gisa, EiTBk konpromiso editoriala hartu du larrialdi klimatikoa agenda informatiboan jartzeko, eta ingurumenari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egin ditu gizartea kontzientziatzeko.



Helburuak lortzeko aliantzak

EiTBk badaki beharrezkoa dela ezagutzak mobilizatu eta trukatu dituzten erakunde anitzten arteko aliantzak sortzea, garapen jasangarria sustatuko bada. Aliantza horiek bistaratzen dira, besteak beste, EiTBk garapen jasangarriarekin dituen konpromisoetan, elkartzeko edo babesteko ekintzetan, fundazio eta erakundeei egindako ekarpenetan eta komunitatean egindako inbertsioan.



Osasuna eta ongizatea


Erakundeak, gehienbat, arriskuen prebentzioan egiten du lan, eta, horrez gain, komunitatea eta plantillako langileak kontzientziatzen ditu bizimodu osasungarriarekin osasuna zaintzeak duen garrantziaz. EiTBk osasun-larrialdiei buruzko informazioa emateko zeregina du, baita osasun-larrialdi bat gertatuz gero herritarrek hartu behar dituzten osasun-neurriei buruzkoa ere. EiTBren barruan, osasuna sustatzeko eta babesteko, prebentziorako eta laneko arriskuetaarako planak egiten dira, enpresa-medikuntzako zerbitzua eskaintzen da eta, horrez gain, beste azterketa mediko espezializatu batzuk egiteko aukera ere ematen da. Bere enplegatuen ongizate fisiko eta emozionala eta lan-bizitzaren kalitatea sustatzeko, EiTBk **Izan Ongi** barne-plana abiarazi du.

Materialtasuna eta interes-taldeekiko harremana

2019an, Taldeak erabaki zuen bere materialtasun-matrizea eguneratzea, eta oso garrantzitsutzat jo zen **EiTbren erreforma integrala egiteko Legebiltzarreko Ponentziaren** harira egindako elkarrizketa-ariketaren emaitza. Ponentzia horrek hainbat azterlan soziologiko –kuantitatibo nahiz kualitatibo– aktibatu zituen, interes-talde ugariarekin, euskal gizarteak EiTbri buruz duen pertzepzioa zehatz-mehatz eta fidagarritasun osoz islatzeko.

Materialtasunaz birpentsatzearen helburua zen memoria berri honetan interes-taldeei benetan axola zaizkien eta EiTbrentzat giltzarri diren gai guztiak azalduko zirela ziurtatzea. Horretarako, *design thinking* prozesu bat abiarazi zen, lehenetsi beharreko alderdiak identifikatzeko, betiere interes-taldeen ikuspegitik. Berarekin harremana duen interes-talde bakoitzaren lehentasunak eta itxaropenak partekatu zituen lantaldeak.

Materialtasun-matrizea lantzeko prozesuan, alderdi materialak identifikatu, lehenetsi eta balidatu behar dira, eta alderdi horiek GRI alderdiekin lotu, grafiko honetan erakusten den bezala:




2. Jasangarritasuna EiTbN

Materialtasunaren analisia

Identifikatutako alderdi eta gai garrantzitsuen lehenesteko ariketa bat egin zen, materialtasun-matrize batean duten kokapena zehazteko. Horretarako, edukien lehentasuna mihise baten gainean irudikatu zen, eta lantaldeko kide guztiek edukiak irauli zituzten EiT Brentzat eta, oro har, interes-taldeentzat zuten garrantzi-mailaren arabera.

Horren ondorioz, materialtasun-matrizea lortu zen, gaiak lau garrantzi-mailatan antolatuta. Gaiak lehenetsi ondoren, ekitaldian materialak izan ziren alderdi guztiak GRI Standards-en edukiarekin alderatu ziren, memoria arau horietara egokitzeko.

Azkenik, edukiak baliozkotu ziren, exhaustibotasun-printzipioari eta interes-taldeen parte-hartzeari jarraikiz, atal funtzionalen arduradunen bidez. Baliozkotze gehigarri gisa, emaitzak interes-taldeekin egindako zuzeneko interakzioekin (inkestak, komunikazio-kanalak, Legebiltzarreko Ponentzia) alderatu ziren, eta haiekin osatu ziren kontuan hartu gabeko alderdiak, exhaustibotasuna ziurtatuz (esaterako, transformazio digitala eta sozietate-integrazioa).




2. Jasangarritasuna EiTbN

Materialtasun-matrizea

Ondoren, materialtasun-matrizea azaltzen da, garrantzi-mailen arabera banatutako eta memoria egituratzen duten ardatzen arabera sailkatutako edukien zerrendarekin.

Ezkerreko zutabea, interes-talde bakoitzarentzat garrantzitsuak diren gaiak azaltzen dira (saioan identifikatutakoak). Lan-ardatzaren arabera taldekatu dira, ardatz bakoitza garrantzitsua baita interes-talde desberdinentzat. Eskuineko zutabea, dokumentu honetan zehar erantzun nahi zaien GRI edukia lotu zaizkie ardatz horiei.



Gobernu korporatiboa (Compliance)		Hauei axola zaie: arauemaileak, gizartea
1	Arauak betetzea	419 - Betetze sozioekonomikoa
2	Gardentasuna eta gobernantza	205 - Ustelkeriaren aurkako borroka
28	Sozietate-egitura sozietate publiko bakarra sortzeko	102 - Erakundearen profila
Enpresa		Hauei axola zaie: arauemaileak, gizartea, langileak
3	Albistegiaren audientzia eta profesionaltasuna	417 - Marketina eta etiketatzea
4	Aniztasuna eta adierazpen-askatasuna	Adierazpen-askatasuna
5	Aurrekontu-kudeaketa eta 0 defizita	201 - Ekonomia-jarduera
6	Audientzia (adierazle orokorrak)	417 - Marketina eta etiketatzea
6.1	Audientzia (adierazle orokorrak)	203 - Zeharkako inpaktu ekonomikoa
7	Autoregulazioa	Edukien sorrera
7.1	Autoregulazioa	Edukien dibulgazioa
7.2	Autoregulazioa	417 - Marketina eta etiketatzea
8	Ikus-entzunezkoen euskal sektorea	Edukien sorrera
9	Enpresa hornitzaileekiko harremana	204 - Erroste praktika
27	Transformazio digitala eta edukien modalitate berria	Berrikuntza eta edukien sorrera
Pertsonen ardatza		Hauei axola zaie: langileak eta beren ordezkariak
10	Ordainsariak	405 - Aniztasuna eta aukera-berdintasuna
11	Langileekiko elkarbizketa	402 - Langileen eta zuzendaritzaren arteko harremanak
12	Berdintasuna, aniztasuna eta diskriminaziorik eza	405 - Aniztasuna eta aukera-berdintasuna
12.1	Berdintasuna, aniztasuna eta diskriminaziorik eza	412 - Giza eskubideen ebaluazioa
13	Enplegua	401 - Enplegua
13.1	Enplegua	404 - Gaikuntza eta hezkuntza
14	Izan Ongi (lan-ingurunea)	401 - Enplegua
15	Lan-harremanak	402 - Langileen eta zuzendaritzaren arteko harremanak
16	Segurtasuna eta osasun okupazionala	403 - Laneko osasuna eta segurtasuna
Herritarren ardatza		Hauei axola zaie: gizartea, arauemaileak
17	Programa eta ekimen arrakastatsuak	413 - Tokiko komunitateak
18	Hezkuntza-harremanak	413 - Tokiko komunitateak
19	Lekukotzak	413 - Tokiko komunitateak
20	Komunitatearekiko harremana	413 - Tokiko komunitateak
21	Sariak eta aintzatespenak	413 - Tokiko komunitateak
22	Genero-ikuspegia	Edukien sorrera eta dibulgazioa
Ingurumenaren ardatza		Hauei axola zaie: gizartea, arauemaileak
23	Ingurumena	302 - Energia
23.1	Ingurumena	305 - Isuriak
23.2	Ingurumena	Edukien sorrera
23.3	Ingurumena	Edukien dibulgazioa
Euskararen ardatza		Hauei axola zaie: gizartea, arauemaileak
24	Euskara	Kulturarako eskubidea
25	Kultura- eta hizkuntza-elkarteak	Kulturarako eskubidea
Euskadi Munduan ardatza		Hauei axola zaie: nazioartek interes-taldeak, atzerriko euskal komunitateak
26	Nazioarteko proiektzioa	102 - Erakundearen profila

2. Jasangarritasuna EiTbN

Balioa sortzeko prozesua

Memoria hau hainbat kudeaketa-ardatzen inguruan antolatu da, eta EiTbren egitura- eta gobernu-egiturari buruzko sarrera-kapitulu batzuk ditude EiTb.

Ardatz bakoitzean –**Pertsonak, Herritarrak, Euskara, Euskadi Munduan eta Ingurumena**– deskribatzen dugu nola kudeatzen dugun eta nolako emaitzak lortu ditugun. Horrela, memoria hau irakurtzean, EiTbK egunez egun kudeatzen dituen erronkak eta aukerak uler daitezke, bai eta alderdi eta eduki horiek guztiak garapen jasangarriaren ikuspegitik nola aztertzen diren ere.




Kudeaketaren ikuspegia

Ardatz bakoitzean kudeaketaren ikuspegia ezartzen da, hau da, gai bakoitza nola kudeatzen den.



Emaitzak

Ardatz bakoitzerako, lortutako emaitzak eta dagozkion adierazleak eta edukiak adierazten dira.



Enpresa

EiTBren ahaleginak **informazioan eta gaurkotasunean liderra** izatera bideratuta daude, Euskadiko informazio-erreferentzia nagusia izanik eta euskararen gizarte-prestigioa eta normalizazioa sustatuz



3. Enpresa

Erakunde-kultura

[2017-2020 plan estrategikoak](#) aukera ematen dio Taldeari bere ekintza guztiak bideratzeko eta ingurune aldakor batean zerbitzu publikoaren eredua ziurtatzeko, audientziaren eta gizarte-prestigioaren maila altuak bermatuz.

Eragiketei dagokienez, Taldea etengabe ari da hobekuntzak bilatzen, eraginkortasuna maximizatzeko kudeaketa aurreratu eta jasangarriaren bidez; ildo horretatik, arreta berezia jartzen du transformazio digitalean. Horrela, gizarte konektatu eta gero eta zorrotzagoari erantzun dakioke.

Oinarrizko printzipioak

- Bizikidetzaren balio zibikoen defentsa eta sustapena.
- Berdintasunaren eta aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoaren printzipioekiko errespetua.
- Euskal kulturaren eta hizkuntzaren sustapena.
- Gazteen eta haurren babesa eta sustapena.

Ikuspegia

Euskadin lider den korporazio multimedia gara, eta erreferentzia gara informazio-sinesgarritasunari dagokionez.

Euskal ikuspegia duten edukiak eskaintzen ditugu, interakzio ona dugu herritarrekin, eta komunikaziorako euskal esparrua sortzen laguntzen dugu.

Gure aldetaren helburua da konektatutako pertsonak eta eduki-komunitateak EiTbren misioaren jomuga bihurtzea.

Misioa

Zerbitzu publiko bat gara.

Interakzio ona dugu gure audientziekin.

Informazioa, dibulgazioa eta entretenimendua eskaintzen ditugu; euskal kultura eta euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzen ditugu.

3. Enpresa

Balio korporatiboak


EITBk talentu onenaren aldeko apustua egiten du, eta pertsona trebeak ditu, balio berberak partekatzen dituztenak eta asmoarekin konprometituta daudenak.



3. Enpresa

Audientzia

Beste Autonomia Erkidegoetako komunikabideekin alderatuz gero, EitB da audientzia altuenak dituztenetako bat. Izan ere, Kataluniako CCMA eta Galiziako CRTVG erakundeekin batera, merkatuko erreferente dira. Oro har, telebistako merkatu-kuotaren neurketa ondoren erakusten den rankingak ezartzen duena da.



■ 2019 ■ 2018


Iturria: Kantar Media.




3. Enpresa

Albistegiak

Albistegiak EiTBen funtsezko elementuetako bat dira, eta herritarrentzako informazio-iturririk hurbilena dira. ETBko albistegiek dute audientzia altuena EAEko beste kanalekin alderatuta, audientziari buruzko informazioak erakusten duen bezala (iturria: Kantar Media).



Iturria: Kantar Media.



Iturria: guk egina, Kantar-en datuetan oinarrituta..



EiTBen albistegiek irismen handia dute. Albistegiak egunero kontsumitzen dituzten ikusleen % 47k Gaur Egun (ETB1) eta Teleberri (ETB2) aukeratzen dituzte uneren batean.

3. Enpresa

Programazio orokorra

Programazio orokorra ere funtsezko alderdia da. Kirol emanaldien eta prime time saioen aldeko apustuari eusten dio ETB1ek. ETB2ren apustua da ordu tarte zabaletan posizio garrantzitsuak ziurtatzea.


EITBren berezitasuna da euskarazko eta gaztelaniazko kanalez hornitutako eskaintza orokorra duela. Programazio-parrilla osoen eta bi hizkuntza ofizialetan bereizitako parrillen kasu bakarra da, eta hori da euskal gizartearen interes orokorra hobekien asebetetzen duen eredua⁵.



Telebista

2019ko audientzia-kuota


Telebista-taldeak



Iturria: Kantar Media.

2019ko audientzia-kuota indibiduala

EiTBren telebista-kanalak



Iturria: Kantar Media.


5. Kanal tematikoek/beste batzuek merkatu-kuotaren 38,5 zuten 2019an, eta merkatu-kuotaren 37,2, berriz, 2018an.

3. Enpresa

Irratia

Irrati-edukien kontsumoari dagokionez, EiTbK audientzia-emaiza hauek erregistratu ditu 2019an:


2019ko Talde Kontsumoa EAE al.-ig.



Iturria: CIES.

1. SER, C40. Dial. Máxima FM, Los 40 Classic
2. COPE. C100, Rock FM, MegaStar
3. Onda Cero Europa FM, Melodía FM
4. RNE, R3, R5, Radio Clásica

2019ko EiTB kontsumoa EAE + Nafarroa al.-or.




Iturria: CIES.



3. Enpresa

EiTB Taldeko irratiak nagusi dira gainerako irrati publikoen aldean EAEn. Euskal entzuleen **% 37,20k** egunero entzuten dituzte EiTB Taldeko irratiak (orokorrak: Radio Euskadi, Euskadi Irratia eta Radio Vitoria; musikalak: Gaztea eta EiTB Musika).



Iturria: guk egina, CIES eta EGMren datuetan oinarrituta.




3. Enpresa

Internet


Azkenik, eitb.eus plataformaren erabiltzaileen hazkundeak tasa ia esponentzialak erakusten ditu; horrek aditzera ematen du, alde batetik, komunikabideak erabiltzaileen profileen duen eraginkortasuna, eta, bestetik, bizkor hazi dela informazioa eta entretenimendua eskuratzeko informazio-teknologiak erabiltzen dituztenen kopurua.

eitb.eus zerbitzuaren erabiltzaile bakarrak



Iturria: OJD Interactiva eta Google Analytics.

Berriz ere, audientziek, autonomia-erkidego bakoitzeko populazioarekin alderatuz gero, EiTbren lidergoa erakusten dute Internet bidezko eskaintzari dagokionez.



Iturria: guk egina, Comscore-ren datuetan oinarrituta.



3. Enpresa

Aniztasuna eta adierazpen-askatasuna

“Gizabanako guztiek dute iritzi- eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du bakoitzaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta iritziak mugarik gabe eta nolanahiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa”. (Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 19. artikulua)

Filosofia eta ikuspegia

EiTBk hau jasotzen du berariaz bere Estilo Liburuan:

EiTBren hedabideetan beti onartu, defendatu eta sustatu behar dira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta ondorengo araudietan jasotako eskubide guztiak, eta bereziki UNESCOk landutako Kazetaritzako Etika Profesionalaren Nazioarteko Printzipioetan.

Hauak dira oinarrizko printzipio horietako batzuk:

- a) Bizikidetzaren balio zibikoaren defentsa eta sustapena
- b) Berdintasunaren eta aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoaren printzipioekiko errespetua.
- c) Euskal kulturaren eta hizkuntzaren sustapena
- d) Gazteen eta haurren babesa eta sustapena

a) eta b) puntuek garapen zehatza dute Estilo Liburuan, gizartean dagoen aniztasunaren ikusgarritasuna, komunikabidearen akonfesionaltasunetik erlijio-adierazpenekiko errespetua eta kultura-aniztasunaren aberastasuna ziurtatuko dituen eredu publikoa babesteko. Halaber, EiTBk sustatzen du parte-hartze demokratikoa eta generoagatik, arrazagatik edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik diskriminaziorik ez egitea.

Zuzentzeko eta kontraerantzuteko eskubidea berariaz jasota dago EiTBren Estilo Liburuan.



3. Enpresa

Aniztasunaren eta adierazpen-askatasunaren kudeaketa

[EiTB sortzeko 5/1982 Legeak](#) "herritarren informaziorako eta parte-hartzerako tresna nagusi" gisa definitzen du komunikabidea, eta haren jarduketa-printzipio orokorrak ezartzen ditu "berdintasunaren eta aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoaren printzipioekiko errespetua" bermatzeko.

EiTBren Erredakzio Estatutuak aitortzen duenez, EiTB zuzenbide-estatu demokratikoaren prozedurekin arautzen da, adierazpen-askatasunerako eta egiazko informazioa jasotzeko eskubideak errespetatuz.

Informazio-zerbitzu publikoa den aldetik, Erredakzio Estatutuak ezartzen du EiTBk herritarrei eskainiko dien informazioak oinarri hauek izan behar dituela: "gertaerak egiazko izatea, iturri guztiak kontsultatzea, edozelako manipulazioa ez onartzea, eta UNESCOk, Europako Kontseiluak eta Kazetarien Nazioarteko Federazioak landutako kazetaritzako etika profesionalaren printzipioak errespetatzea".

Erredakzio Estatutuaren helburua da ziurtatzea EiTBren komunikazio-profesionalek eskubide horiek garatzeko gizartearen aldetik jaso duten agindu inplizituaren gordetzaile gisa jokatu eta jardun behar dutela, beren betebeharrak profesional nagusia askatasunez, independentziaz, zorrotzasunez eta objektibotasunez informatzea izan dadin, eta Estatutu horrek ezartzen dituen printzipio editorial eta deontologikoak errespetatuz.

Horretarako, Erredakzio Kontseiluak ditu EiTBk, 17 kazetari ordezkari osatuak, 2018ko apirilaren 27ko hauteskundeetan bi urtetarako hautatuak.

Bestalde, 2019ko ekitaldian hiru hauteskunde-prozesu egon dira: herritarren parte-hartze politikorako eskubidea aplikatzeko ariketa bereziki zorrotza. EiTBk arreta berezia jarri dio hauteskundearen garapenari, informazio- eta hauteskunde-estaldurarako landutako planekin; plan horiei esker, kontrol-organoen inolako gorabeherarik gabeko neutraltasun-, aniztasun- eta adierazpen-askatasunaren printzipioak bermatu dira. Horrez gain, **genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna** lortzeko EiTBren eduki guztietan bideratutako ekintzak aztertu ziren.

2019ko ebindentziak

Europar rankinga EiTB 4. komunikabide fidagarriena

4.

Presio politiko edo komertzialik gabeko informazioa

Ez da adierazpen-askatasunaren arloko gorabeherarik izan, ezta Erredakzio Kontseiluaren edo kontrol-organoen (Eusko Legebiltzarra eta Administrazio Kontseilua) salaketarik ere.

14.

Neutraltasuna eta aniztasuna

EiTBk arreta berezia jarri dio hauteskundearen garapenari, informazio- eta hauteskunde-estaldurarako landutako planekin; plan horiei esker, neutraltasun- eta aniztasun-printzipioak bermatu dira, inolako gorabeherarik gabe.

Euskal rankinga EiTBren posizioa telebistan eta irratian

	 1	 2	 euskadi irratia	 radio euskadi
Objektibotasuna / Inpartzialtasuna	2.	1.	1.	3.
Aniztasuna	3.	1.	1.	3.
Profesionaltasuna	2.	1.	1.	3.


Iturria: 67. Euskal Soziometroa, EiTBren Erreforma Integrala egiteko Ponentziak sustatua.
Iturria: EiTBren markako irudiaren azterlana. Gizaker, 2019ko abendua.

3. Enpresa

Bezeroaren babesa eta gogobetetzea

EiTBko Bezeroen Zerbitzuak bezeroei begirako prozedurak eta kanalak ditu, hala nola audientziaren arretarako telefonoa eta webguneko harremanetarako inprimakia. Mezu horiek Bilboko harrerara iristen dira, eta handik EiTBren Bezeroaren Zerbitzura (info@eitb.eus) bidaltzen dira, Prentsa Bulegoak erantzuna eman diezaien. Arazo teknikoekin lotuta daudenak harreratik bideratzen dira zuzenean.

Jasotako komunikazioen sailkapena 2019ko deiak eta mezuak



- Parte-hartzea:** ikasleen eskaerak, informazioa edo elkarrizketak eskatzeko, Hiru3ko kide egiteko, edo zozketei, bideo-eskaerei, datuei edo programen eskuragarritasunari edo datu pertsonalen babesari buruzko zalantzak argitzeko.
- Zuzenketak:** albistegietako ortografia-akatsen buruzko oharak, kirolean emakumeek duten presentziari edo beste kirol-gai batzuei buruzko iruzkinak edo kexak, edo entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako baliabideekin lotutako erreklamazioak.
- Arazo teknikoak:** nahieran plataformako edukietako akatsen buruzkoak, arazoak emisioekin edo webguneko inprimakiarekin.

Audientziak babesteko beste mekanismo batzuk

216 erregistro, hainbat gorabeherari buruz, jaso eta kudeatu dira

15 kexa, Ikuslearen Defentsa Bulegora zuzenduta

27 eskaera, ARCO eskubideei buruz (sarbidea, zuzenketa, ezerezte, aurkaratzea)

1 eskaera, gardentasun-atariaren bidez informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko

3. Enpresa

Ekonomia-jarduera

Zerbitzu publiko batentzat, ekonomia-jarduera funtsezko alderdia da kudeaketari dagokionez; izan ere, EiTbren jarduera kontrolatzen duten erakunde guztiek gainbegiratzaren dute alderdi hori. Atal honetan, sortutako eta Taldeak banatutako balio ekonomikoaren deskribapena jaso da. Kontzeptu horrek hiru finantza-egoera tradizionalak osatzen ditu, interes-taldeekiko harremanetan balio ekonomikoa sortu eta banatzeko ikuspegiarekin.

Horrez gain, egindako inbertsioen berri ematen da.

Sortutako eta banatutako balio ekonomikoa

2019ko datuak (k €)

		2017/12/31	2018/12/31	2019/12/31
Sortutako zuzeneko balio ekonomikoa		137.128	137.301	144.557
Sarrerak	Salmenta garbiak, horniduren itzulketak eta merkataritza-eragiketengatikoa narriadurak, finantza-inbertsioetatik lortutako sarrerak, aktiboen salmentengatikoa sarrerak, ezohiko sarrerak eta ustiapenerako dirulaguntzak.	137.128	137.301	144.557
Banatutako balio ekonomikoa		(141.155)	(140.845)	(148.812)
Eragiketa-kostuak	Ondasun- eta zerbitzu-hornitzaileei egindako ordainketak, merkataritza-eragiketengatikoa hornidurak eta narriadurak, ibilgetuaren amortizazioa, ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzak eta bestelakoak, aktiboen salmentengatikoa galerak eta ezohiko gastuak.	(78.112)	(79.227)	(82.709)
Langileen soldak eta irabaziak	Plantillaren eta zuzendaritzako langileen kostua.	(47.725)	(46.896)	(50.111)
Kapital-hornitzaileei egindako ordainketak	Finantza-gastuak.	(13)	(15)	40
Administrazio Publikoari egi ordainketak	Ekitaldian sortutako zergen gastuak.	(15.305)	(14.706)	(16.031)
Atxikitako balio ekonomikoa		(4.027)	(5.544)	(4.254)

Oharra: Eragiketa-kostuek tributuak barne hartzen dituzte.

TALDEAREN INBERTSIOAK	2017	2018	2019
INBERTSIO ARRUNTAK	2.692.521,00	3.875.181,00	4.342.370,00
ZINEMA-INBERTSIOAK	4.374.682,00	4.297.479,00	5.739.004,00
GUZTIRA	7.067.203,00	8.172.660,00	10.081.374,00

3. Enpresa

Sarrera publikoak

Zerbitzu publikoek, oro har, beren funtzionamendua azaltzen duen zeharkako inpaktu ekonomikoa sortzen dute. 'Ondasun publiko' gehienek gobernuen finantza-euskarria jasotzen dute, etengabeko funtzionamenduari eusteko eta haiengandik eratorritako gizartearentzako balioa sortzeko. Adibiderik argienak dira, besteak beste, garraio publikoa, irrat-difusio bidezko zerbitzuak, osasun-prestazioak, hezkuntza eta gizartearen garapen normalari laguntzen dioten bestelako jarduera-esparruak. **Audientzia** atalean, EiTBen zeharkako inpaktuak deskribatzen dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, xehetasun gehiago daude EiTBen urteko kontuetan.

Ekitaldiaren emaitzari gehitutako ustiapen-dirulaguntzak (milioi eurotan)




3. Enpresa

Balio-katea

Bere ikuspegia betetzeko egituratuta dago EiTBen balio-katea, aldi berean bere osagaiekin harremanetan dagoela balioa sortzeko prozesuan.

erakundearen balio-katearen osagaiak



3. Enpresa

Enpresa hornitzaileak

EiTBren zerbitzuen, horniduren eta obren erosketek bi araudi-eredu desberdin bete behar dituzte, kontratazio publikorako eta beste kontratazio-prozedura batzuetarako ezarritakoak. Ondasun eta zerbitzu arruntak kontratazio publikorako ezarritako baldintzen arabera arautzen dira; ikus-entzunezko edukiak, berriz, merkataritza-legeriaren arabera kontratatzen dira, Europako ikus-entzunezko baliabide publikoen jardunbide orokor gisa. Kontratuen betetze-maila kontrolatzea kontratazioaz arduratzen den atalaren erantzukizuna da, lege-atalaren euskarriarekin.

Azken hiru urteetako kontratazioek EiTBk tokiko kontratazioan duen garrantzia erakusten dute; hori da, izan ere, Taldearen jasangarritasun-politiken funtsezko alderdietako bat.

TALDEAREN GIZARTE-BALIOA

2019ko adierazleak (eurotan)

	2017	2018	2019
Fakturazio globala	80.616.521	82.361.111	87.847.818
Lizitazio-espeditenteen fakturazioa	20.281.689	22.693.568	24.715.022
Espediente txikien fakturazioa	4.647.724	4.560.367	4.273.342
Guztira SPKL	24.929.414	27.253.936	28.988.365
Lizitazio publikoari buruzko kontratazioa*			
Lizitazio-espeditenteen balio zenbatetsia	39.543.601	41.802.955	38.756.736
Eskaeren zenbatekoa	2.254.705	2.583.051	2.430.393
Fakturazioaren %, euskal enpresei dagokienez**	% 78	% 77	% 78
Fakturazio globala	80.616.521	82.361.111	87.847.818
Euskal enpresen fakturazioa	62.889.293	63.581.340	68.497.587
Fakturazioaren %, ikus-entzunezkoen euskal sektoreko enpresei dagokienez***	% 45	% 47	% 50
Fakturazio globala	80.616.521	82.361.111	87.847.818
Ikus-entzunezkoen euskal sektoreko enpresen fakturazioa	36.408.187	38.858.549	43.813.448
Fakturazioaren %, euskal ekoiztetxeei dagokienez***	% 28,6	% 30,8	% 34
Fakturazio globala	80.616.521	82.361.111	87.847.818
Ikus-entzunezkoen euskal sektoreko enpresen fakturazioa	23.082.574	25.360.707	29.873.451

*Espedienteetakoak ez diren eskaerak barne + kontratuen balio zenbatetsiak (luzapenak barne)

**EAEEn zerga-egoitza duten enpresei dagozkien fakturak barne


***Kontabilitateko kontu jakin batzuetan dauden eta zerga-egoitza EAEEn duten enpresei dagozkien fakturak barne

3. Enpresa

Kontratu Publikoak

Ondoren, eta politika jasagarriekin bat eginez, GEKaren irizpideekin lotutako klausulak dituzten kontratuak erakusten dira. Etorkizunean, irizpide horiek gero eta leku handiagoa izango dute, jasagarritasun-politikak balio-kate osora hedatu ahal izateko.

Jasagarritasun-irizpideekin egindako kontratuak
2019an eginak



- **Ingurumen-irizpideekin,**
balio zenbatetsia: 9.112.654 €
(% 23,55 guztizkoarekiko)
- **Berdintasun-irizpideekin,**
balio zenbatetsia: 2.954.601 €
(% 7,64 guztizkoarekiko)
- **Laneratze-irizpideekin,**
balio zenbatetsia: 804.060 €
(% 2,08 guztizkoarekiko)
- **Jasagarritasun-irizpiderik gabe**

Gobernu Korporatiboa

4

4. Gobernu Korporatiboa

Gobernu-organoak

EiTBk gobernu korporatiboko bi organo nagusi ditu:

- **Administrazio Kontseilua:** 19 kidek osatzen dute, eta EiTBko zuzendari nagusiak parte hartzen du kontseiluan. Kontseiluaren % 42,1 emakumeek osatzen dute.
- **Zuzendaritza Nagusia:** administratzaile bakar batek osatzen du –Taldekoko zuzendari nagusiak–, eta hura da ingurumenaren, gizartearen eta gobernu korporatiboaren arloetako erabaki-organo goren




EiTBko ADMINISTRAZIO-KONTSEILUA

Manuel Allende Arias
Adolfo Arejita Oñarte-Etxebarria
Concha Aretxaga Iturregui
Jose Antonio Campos Granados
Susana Ciaurriz Goñi
Aiala Elorrieta Aguirre
Andoni Etxebeste Iraeta

Amaia Fernández Angulo
Diego González Moyano
Iñigo Iturrate Ibarra
Andeka Larrea Larrondo
Garbiñe Mendizabal
Iker Merodio Urbaneja

Fermin Munarriz Olloki
Koldo Nabaskues Simón
Beatriz Nabaiza Amillategi
Rosa Miren Pagola Petrirena
Arantza Rica Álvarez
Óscar Torres Lavid

Negozio-unitateetako Zuzendaritza Batzordeak




Plangintza estrategikoa

EiTBk zerbitzu publikoaren prestazioaren ardatzen ikuspegi eguneratua ezartzen du bere [2017-2020 Plan Estrategikoak](#), hamar misio eta konpromisoren bidez, bere jardueraren adierazle nagusiekin batera.

Misio horiek lortzeko, EiTBk definitutako zortzi ildo estrategikoek aukera emango diote kalitatezko informazioa bermatzeko, euskara sustatzeko, euskal kultura eta kirola sustatu eta zabaltzeko, ikus-entzunezko industria bultzatzeko, gizarte-koherentsia indartzeko eta informazioaren gizartea sustatzeko.

Gainera, gidatzat hartuko dira erakundeak [Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen 2017-2020 Planarekin](#) konprometituta jardun dezan; plana euskal erakundeek onetsia da.

EiTBren ildo estrategikoak



4. Gobernu Korporatiboa

Transformazio digitala

Konektatutako pertsonen kopuruaren hazkunde esponenzialaren aurrean, komunikabideek eboluzionatu egin behar dute horri egokitzeko. Paradigmaren aldaketak erabiltzailea erdigunean jartzen du: produktuetan baino gehiago zerbitzuetan pentsatzera behartzen du.

Prozesu horrek, tresna digitalak ezartzeaz gain, transformazio kulturala dakar. Transformazio hori lortzeko, EiTbK prozesu integratuen aldeko apustua egiten du, negozio konbentzionalean (telebista eta irratia) presentzia handia izateko, baina, aldi berean, alderdi digitalerantz argi eta garbi lerratzeko.

Lerratze hori lortzeak erakundea berrasmatezea eragingo du, ingurune lehiakor berri batean, konponbide teknologiko eraginkorrekin eta erabiltzaile zorrotzentzako edukien esperientzia bereziarekin. Proiektuaren erdigunean, komunikabidearen eta pertsonen arteko harreman zuzena ezartzen da, komunitateen eta edukien bidez.

Era berean, prozesuak kontsumo-ereduetara egokitu behar dira; horretarako, portaerak eta joerak sakonki ezagutu behar dira, eta kontuan hartu behar da konektatutako pertsonak aktiboak eta sortzaileak direla, iritzia ematen dutela, partekatzea gustatzen zaiela, kritikatzeko dutela, aukeratzen dakitela eta komunitateetan mugitzen direla. Lantaldeek eta prozesuek analisi-mekanismoak eta -tresnak behar dituzte gure erabiltzaileen ohitura-aldaketak detektatzeko, ezagutzeko eta aztertzeko, eta haiek eskatzen dituzten produktuei eta zerbitzuei aurrea hartzeko.

Ikuspegi teknologikotik, EiTbK apustu egiten du edukien plataforma propioak (EiTb.EUS – APPak) bizkortzearen alde, telebista eta gailu konektatuei begira (finko nahiz mugikorrei). Bestalde, edukia Interneteko plataforma masiboetan argitaratzeak audientzia maximizatzeko eta esperientzia digital berriak sortzeko estrategia bultzatzen du, betiere EiTbren nortasuna gordez.

Komunikazio-plataformak integratzen dituen eredu baten bidez, modalitate berri bat eskaintzen da, gizartean eragiteaz gain harremanetan ere eragingo duena –bai Euskal Herri mailan eta bai euskal diaspora mailan–, baita balio handiko edukiak eskura ditzakeen publiko global batengan ere.

Digitalizazio-prozesuaren barruan, EiTbren edukiak produzitzen dituzten lantalde guztiek –barnekoek zein kanpokoek– diseinatzeko diren unetik aurrera eskaintza digitalean agertzen diren kontsumo-formatuak tratatu ahal izateko behar den ezagutza izan behar dute. Gainera, transformazio digitalaren prozesuak lanbide- eta antolaketa-garapenari buruzko ikuspegi berriak eskatzen ditu, ingurune digitalera egokitutako prozesuetan oinarrituta, bai eta izaera digitaleko lanbide berriak ere.

4. Gobernu Korporatiboa

Estilo Liburua

Informazio egiazkoa eta arduratsua eskatzen duen gizarte bati erantzuteko, eta edukiak sortzeari eta zabaltzeari dagokienez Taldearen ildo estrategikoei jarraitzen zaiela bermatzeko, EiTBk bere [Estilo Liburua](#) landu du. Estilo Liburuak, izan ere, informazioaren tratamendua antolatzeke eta ikuspegi multimedia aplikatzeko gidalerroak eskaintzen ditu.

Gizarte eta teknologia mailako aldaketek lan bizi eta dinamikoa izatera behartzen dute. Edukia berrikusi da 2019an zehar, 2020an edizio berria argitaratzeko. EiTBk, komunikazio-taldea den aldetik, herritarren informazio-eskubidea bermatuko duen kalitatezko kazetaritza aldarrikatu nahi du bere Estilo Liburuan.



Horrez gain, liburuak asetzen du egunero gaurkotasuna tratatzerakoan hainbat arazori aurre egin behar izaten dieten pertsonen eskaera historikoa, eta lanbide osorako baliabide aberatsa eta gogoeta eta eztabaida akademikorako tresna izan nahi du.

Arriskuen kudeaketa eta betetzea

EiTBk Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publikoentzat Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ezarritako eskakizunak betetzen ditu. Horretarako, segurtasun juridikoko sistemak ditu bere esku, interes-taldeen ongizatea eta eskubideak bermatzeko eta ingurune arauemailean kokatzeko. Gainera, salaketa-bide egokiak ditu, Delituak Prebenitzeko Planean jasota daudenak.

Arriskuak egoki kudeatzeko eta arauak betetzen direla ziurtatzeko, EiTBk arriskuen kudeaketarako eta barne-kontrolerako sistema bat du, helburu hauek betetzen direla ziurtatzeko:

- Helburu estrategikoen garapena eta jarraipena.
- Eragiketen eraginkortasuna eta efizientzia.
- Finantzei eta eragiketei buruzko informazioaren fidagarritasuna.
- Aktiboen babesa.
- Aplikatzekoak diren politikak, prozedurak, legeak eta arauak betetzea eta horren berri ematea.
- Irudia eta marka zaintzea.



4. Gobernu Korporatiboa

Etika eta Jokabide Kodea

Etika eta Jokabide Kodeari esker, EiTBk oinarri ona du Delituak Prebenitzeko Plana eraikitzeko. Kode honek Taldearen Delituak Prebenitzeko Planaren eraginkortasun osoa bermatzen du, eta erakundearen izen onaren balioa indartzen du. Horrela, Etika eta Jokabide Kodearen helburu nagusietako bat da EiTB Taldearen etikan, balioetan eta jarduketa-printzipioetan oinarritutako betetze-kultura irakasten eta horri eusten lortzea.

EiTB Taldearen Etika eta Jokabide Kodea eta langileentzat gaitutako salaketa-kanalak EiTB Taldearen Delituak Prebenitzeko Plana aplikatzeko Erregelamenduan arautzen dira, eta balio hauetan oinarritzen da:

Giza Eskubideak

Pertsonaren duintasunarekiko eta pertsonak berezkoak dituen eskubideekiko errespetuan gauzatzen dira. EiTBk konpromisoa hartu du Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren, Nazio Batuen munduko itunaren eta giza eskubideei, biktimei emandako arretari eta bakearen kulturari buruzko nazioarteko erakundeen beste hitzarmen eta itun batzuen edukia aplikatzeko.

Berdintasuna eta aniztasuna

Pertsonen berdintasuna eta harreman pertsonal eta profesional mota guztietako aniztasuna errespetatzean gauzatzen dira, generoa, jatorri etnikoa, sinesmena, erlijioa, adina, desgaitasuna, kidetasun politikoa, sexu-orientazioa, nazionalitatea, herritartasuna, egoera zibila edo estatus sozioekonomikoa direla-eta diskriminazio-jarrerarik erakutsi gabe.

Legezkotasuna

Legeria betetzean gauzatzen da, EiTB Taldearen jardueretan eta eragiketetan nahiz horiekin lotutako jarduketetan aplikatzekoa den legeria betetzeko betebeharrak jabetuta.

Profesionaltasuna

Objektibotasun profesionala hartutako erabakietan eta jarduketetan, EiTB Taldearen edo Taldeko langileen zuzentasuna zalantzan jar dezaketen interes-gatazken edo bestelako inguruabarren eragina onartu gabe.

Erantzukizuna

Erakundeak nahiz norbanakoek erantzukizunez jokatzeari, Kodearen printzipioei eta irizpideei egokitzuz, etikoki, zintzoki eta fedeez jokatzuz, eta, hala badagokio, Kode hau betetzen ez denean Delituak Prebenitzeko Planaren ezarritako kanala erabiliz.

Kontrol-organoak

Taldeak kontrol-organo hauek ezarri ditu delituak prebenitzeko neurri gisa (besteak beste, ustelkeriaren eta eroskeriaren prebentzioa).

Kontrol-organoak:

- Ogasun Sailaren aurrekontu-kontrola.
- Legebiltzarreko EiTbren Kontrol Batzordea.
- Administrazio Kontseilua.
- Programa-kontratuaren Jarraipen Batzordea.
- Funtzio Publikoaren Kontrola Negoziazio Kolektiboari buruz.
- Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
- Urteko kontuen auditoretza eta Informazio Ez Finantzarioaren Egoeraren egiaztapena.
- Kanpo-auditoretzak kudeaketa-sistemei (ISO ziurtagiriak eta beste batzuk).

Horrez gain, EiTb Taldearen Etika eta Jokabide Kodeak, erakundeak merkatuarekin eta hirugarrenekin dituen konpromisoei dagokienez, esplizituki gaitzesten du eroskeria mota oro, eta berariaz debekatzen die langileei hirugarrenen ordainketa edo opari bidegabeak jasotzea nahiz halakoak ematea. Era berean, horren alde azaltzen dira Taldearen opari-politika eta merkatu librearen eta lehiaren arauak urra ditzaketen egoerak prebenitzeko beste mekanismo batzuk.



4. Gobernu Korporatiboa

Autorregulazioa

EiTB boluntarioki sartu zen Autocontrol elkartean. Autocontrol 2005ean sortu zen, irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta Europako Batzordeak publizitate-arloko autoerregulazio-sistema kudeatzeko aitortza eman zion.

EiTBk Autocontrol elkartearen barruan hartutako autorregulazio-akordioak betetzen direla bermatzen du, komunikazio egiazkoa, legezkoa, zintzoa eta leiala bermatzeko. Horretarako, Taldeak [Arau erregulatzaileak](#) ditu bere hedabide guztietan (telebista, irratia eta Internet) aplikatzeko publizitate-emisioei lotuta, EBren Gomendioei eta Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorrari jarraikiz⁶.



Bestalde, EiTBk Autocontrol elkartearen ziurtagiria du: 2019an publizitatearen ondoriozko sexu-diskriminazioagatik ez zela erreklamaziorik jaso egiaztatzen du.



Pertsonen Ardatza

EiTBk lan egiten du bere lantaldeari bere garapen pertsonal eta profesionalerako baldintzarik onenak eskaintzeko, eta, horrela, proiektu partekatu bat duten pertsona trebeek osatutako lan-ingurunea lortzeko.



5. Pertsonen Ardatza

Giza lantaldea

EiTB erakunde heldua da, profesional trebeek osatua, eta ilusioz egiten dio aurre etorkizunari, ikus-entzunezko sektorean erreferente eta lider izaten jarraitzeko

Pertsonen Ardatza EiTBren Plan Estrategikoaren oinarrian dauden ildoetako bat da. Ardatz honen eginkizuna da erakunde osatzen duten pertsona guztien artean ikuspegi partekatua eraikitzea, enpresa-proiektua komunikatzea, urteko kudeaketa-planak ezartzea eta barne-antolaketa transformazio digitalaren aro berrira egokitzea.

Horrek ekarri du lan-prozesuen antolamendua aldatzea, EiTBko lantaldea osatzen duten pertsonak mobilizatuz eta motibatuz, horretarako behar diren bitartekoak eta gizarte-akordioak gaituz. Izan ere, lan-ingurune osasungarria funtsezkoa da talentua behar bezala kudeatzeko eta atxikitzeko.



5. Pertsonen Ardatza

Jarduketa-ildoak

Etorkizunari begira orainari aurre egiteko asmoz, EiTbK hainbat proiektu inplementatu eta garatu ditu 2019an, eta hauek dira garrantzitsuenak:



EiTBren transformazio digitalaren barruan, zeharkako hainbat lantalde ezarri dira, komunikabideetako profesionalez osatuak, prozesuak elkarlanean birdefinitzeko. 2019an zehar EiTBko albistegien lan-prozesua gauzatu da. Proiektu honen azken helburua da EiTB ikus-entzunezko hedabideen kontsumo-eredu berrietara egokitzea eta gure informazio-educien kalitatea eta irismena handitzea.



EiTBko goi-zuzendaritzari eragiten dion ERAIKITZEN proiektuaren esparruan, hainbat komunikazio-foro ezarri dira:

- Goi-zuzendaritzak taldeko (G20+) zuzendariekin, erdi-mailako aginteeekin eta liderrekin egiten dituen bilerak sistematizatu dira, urtean bi bilera formaletan.
- G20+ekin partekatu dira transformazio digitalari eta pertsonen inplikazioari buruzko enborreko proiektu handiak, eta talde heterogeneoetan eta diziplina anitzekoetan haiei buruzko barne-eztabaida egin da.
- Eusko Irratiko plantillako langileei eta Euskal Telebistako erredakzioari laneko testuinguru juridikoari eta kontratazio-politikei buruzko informazioa eman zaie, bai eta horien inpaktuari buruzkoa ere, Bilboko, Miramongo eta Gasteizko egoitzetan egindako bileren bidez.



Izan Ongi ekimena EiTBn **ongizatea eta lan-bizitzaren kalitatea sustatzea** helburu duen jarduketa-proposamena da. Lan-ongizateko barne-politikak aktibatzean eta lan-giro positiboa bultzatzeko praktika berritzaileak aplikatzean datza proiektua, EiTB eraikitzen duten pertsonak erdigunean jarritz beti.

2019an, EiTBn lan egiten duten pertsonen ongizate fisikoa eta emozionala sustatzeko hainbat tailer eta jarduera egin dira Bilboko egoitzan, Lan Ongizatea lantzeko gune berri batean.



Talde profesionalen sistemara pasatzea ahalbidetuko duen **sailkapen eta garapen profesionalaren** proiektuari heldu zaio berriro, transformazio digitalaren eredura eta sozietate-eredura errazago egokitzeko.

- Hitzarmen bat sinatu da Taldeko Enpresa Batzordeekin, sailkapen berria egituratzeko. Lau talde profesional eta hiru atal funtzional izango ditu sailkapen berri horrek.
- EiTB herri-erakundeko lanpostuen definizio berria egin da, metodologia parte-hartzailea erabiliz, plantillako boluntarioekin. Langileen Lege Ordezkaritzak prozesua berretsi du.

5. Pertsonen Ardatza

Enplegua

2019ko abenduaren 31n, EiTb Taldeak **1.182 langileko plantilla** zuen; horrek erakusten du, hain zuzen, % 3,4ko hazkundea izan zuela data horretan aurreko urtean erregistratuta zuen kopuruarekiko.

Plantilla hainbat sozietatek osatzen dute, erantzukizun maila desberdinekin. Memoria honen ondorioetarako, hiru multzo handitan banatu dira. Lehenengoak goi-zuzendaritza eta ataleko zuzendaritzak biltzen ditu (% 1,44), bigarrenak zuzendariordetza eta buruzagitzak (% 4,57) eta hirugarrenak sozietateetako hitzarmen kolektiboen barruan dauden erantzukizun profesionalak eta laguntza-taldeak (% 93,99).

Plantillako langileen banaketa generoaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera

	kop. enpl.	18-30	31-50	>50	Zuzendaritzak		Zuzendarior. / Buruzagitzak		Profesionalak	
		urte (%)	urte (%)	urte (%)	G (%)	E (%)	G (%)	E (%)	G (%)	E (%)
2018	1.143	7,96	46,28	45,76	0,87	0,61	3,41	1,31	51,36	42,43
2019	1.182	10,49	41,96	47,55	0,93	0,51	3,05	1,52	50,34	43,65
ald (%)	3,41	2,53	-4,32	1,79	0,06	-0,10	-0,37	0,21	-1,02	1,22

G: gizonak, E: emakumeak




5. Pertsonen Ardatza

Plantillaren banaketa


Hurrengo grafikoan, taldeko erakunde bakoitzeko enplegatuen banaketa erakusten da. 2019ko abenduaren 31ko taldeko plantillaren banaketa ere erantsi da, generoaren eta adinaren arabera⁷.

Enplegatuenak

- Euskal Telebista, SAU
- Eusko Irratia, SAU
- Ente Público EITB
- Eitbnet, SAU




Enplegatuenak generoaren arabera




- Gizonak
- Emakumeak

Enplegatuenak adinaren arabera



- 18-30 urte
- 31-50 urte
- > 50 urte

Enplegatuenak sailkapen profesionalaren arabera



- Zuzendaritzak
- Zuzendarior/Buruzagitza
- Profesionalak

7. Irrati guztietako langileak, Radio Vitoria barne, Eusko Irratia SAUko plantillakoak dira.

5. Pertsonen Ardatza

Kontratu-modalitateak

Plantilla kontratu-modalitateen arabera banatzeari dagokionez, EiTB Taldeko enplegatuen % 72,4k kontratu mugagabea zuten memoria hau ixtean, eta % 27,6k aldi baterako kontratua. Enplegatu guztien % 11,2 lanaldi partzialeko kontratuarekin zeuden, eta % 88,8 lanaldi osoko kontratuarekin.

Indarrean dagoen legeriarekin eta Europako zuzentarauekin bat etorritik, plantillaren egonkortasuna sustatzeko, behin-behinekotasuna murrizteko eta behin-behineko langileei egonkortasun handiagoa emateko, zenbait hautaketa-prozesu egin dira ETBn 2019an, lan-deialdi publikorik gabe urteak igaro ondoren, eta atal teknikoko hamalau lanpostutarako deialdia egin da, behin-behinekotasunaren ehuneko handia murrizteko.

Era berean, EiTBren egiturazko plantilla finkoa egonkortu egin da, langile mugagabeak gehituz –plaza izan edo ez– eta behin-behinekotasunaren ehunekoa murriztuz

Kudeaketa- eta plangintza-tresnak garatu dira, behin-behineko langileen kontratu kopurua murrizteko, eta, horren ordez, kontratazio egonkorragoak egin dira.

Taula honetan, 2019ko abenduaren 31ko plantillaren banaketa adierazten da, kontratu-modalitatearen, generoaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera:

2019ko plantilla kontratu-modalitatearen, generoaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera						
	18-30 urte		31-50 urte		> 50 urte	
Lanaldi osoko kontratu mugagabea	G	E	G	E	G	E
Zuzendaritza	0	0	4	3	6	3
Zuzendarior. / Buruzagitzak	1	0	9	8	25	8
Profesionalak	4	1	140	152	247	167
Guztira	5	1	153	163	278	178
Lanaldi partzialeko kontratu mugagabea	G	E	G	E	G	E
Zuzendaritza	0	0	0	0	1	0
Zuzendarior. / Buruzagitzak	0	0	0	0	2	1
Profesionalak	1	1	3	6	48	15
Guztira	1	1	3	6	51	16
Lanaldi osoko aldi baterako kontratua	G	E	G	E	G	E
Zuzendaritza	0	0	0	0	0	0
Zuzendarior. / Buruzagitzak	0	0	0	0	0	0
Profesionalak	44	47	67	78	21	14
Guztira	44	47	67	78	21	14
Lanaldi partzialeko aldi baterako kontratua	G	E	G	E	G	E
Zuzendaritza	0	0	0	0	0	0
Zuzendarior. / Buruzagitzak	0	0	0	0	0	0
Profesionalak	6	19	11	12	3	4
Guztira	6	19	11	12	3	4

5. Pertsonen Ardatza

Ordainsariak

Besteren konturako enplegatu guztiei aplikatu beharreko EiTb Taldearen ordainsari-politika –plantilla finkoa osatzen duten erantzukizun-karguak barne– indarrean dauden lau hitzarmen kolektiboetan jasotako xedapenen arabera arautzen da (EiTb, ETB, EUSKO IRRATIA eta Eitbnet). Hitzarmen horietan, halaber, soldata-osagarri jakin batzuk ezartzen dira, oinarritzko soldatari irizpide hauen arabera gehituta: antzinatasuna, erantzukizuna, ordu-tegi-prestasuna, txanda bereziak, aparteko orduak eta bestelakoak (jangela, etab.).

Zuzendaritza-kideen ordainsariak

En relación con lo anterior, el personal directivo de libre designación, conforme al organigrama definido por la Dirección, queda excluido del ámbito de aplicación de los convenios colectivos mencionados, salvo las personas en plantilla que manifiesten expresamente su voluntad de mantenerse dentro del ámbito de aplicación, siempre y cuando sea posible.

Aurrekoarekin lotuta, izendapen askeko zuzendaritza-kideak, Zuzendaritzak definitutako organigramaren arabera, aipatutako hitzarmen kolektiboan aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira, salbu eta berariaz aplikazio-eremuaren barruan jarraitu nahi dutela adierazten duten plantillako pertsonen kasuan, ahal den neurrian.

Zuzendariei dagokienez, sinatutako kontratuek berariaz xedatzen dute izendapen askeko eta banantzeko akordioak direla, EiTb sortzeko 5/1982 Legearen 40.1 artikuluan ezarritakoaren arabera (martxoaren 27ko 8/1998 Legeak aldatu zuen lege hori), eta, ondorioz, hitzarmen aplikagarriaren irismenetik kanpo daudela. EiTb Taldeko zuzendaritza-taldearen soldata-politika bat dator EAEko gobernuak sektore publiko osorako ezartzen duen soldata-politikarekin.

EiTbko goi-zuzendaritzako karguen ordainsaria EAEko Administrazio Orokorraren mendeko erakunde eta sozietate publikoei aplikatu beharreko legezko araudian xedatutakoaren arabera arautuko da. Gainerako zuzendaritza-karguen (buruzagitzen) ordainsaria goi-zuzendaritzarako ezarritako legezko mugen azpitik dago, eta egokia da EiTbren eta haren sozietateen hitzarmen kolektiboetan hitzartutako soldata-mailei dagokienez buruzagitza horien erantzukizunpean eta agintepean dauden langileentzat.







5. Pertsonen Ardatza

Plantillako ordainsariak

Grafiko honetan, 2019an EiTB Taldeko plantilla osoaren generoaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera batez besteko ordainsariari dagozkion datuak erantsi dira, urtean jasotako soldata gordinaren arabera kalkulatuta. Hurrengo grafikoak plantillaren batez besteko ordainsaria erakusten du, adinaren eta sozietatearen arabera, milaka eurotan adierazita.



Aurreko grafikoan emandako datuak osatzeko, EiTB Taldeko plantillaren 2019ko batez besteko ordainsaria erantsi da, generoaren eta erantzukizun profesionalaren arabera, milaka eurotan adierazita.



5. Pertsonen Ardatza

Soldata-arrakala

Generoaren arabera ordainsariaren azterketan sakontzeko, soldata-arrakala kalkulatu da, honela ulertuta: gizonen eta emakumeen soldaten arteko aldea, gizonen soldataren gaineko ehuneko gisa adierazita.

Arrakala kalkulatzeko, Emakundek (Emakumearen Euskal Erakundeak) berdintasun-diagnostikoak eta -planak egiteko emandako kalkulu-jarraibideei jarraitu zaie. .

EiTB Taldearen soldata-arrakala, irizpide horren arabera egindako kalkuluaren ondoriozkoa, **% 3,24koa da, eta, beraz, % 2,96 jaitsi da 2018koarekin alderatuta.**

Erantzukizun profesionalei dagokienez, Zuzendaritza da arrakala txikiena duena (% 0,47), eta, ondoren, profesionalak (% 1,63). Hala ere, soldata-arrakala Taldearen batezbestekoa baino apur bat handiagoa (% 4,36) da Zuzendariordetzan eta Buruzagitzetan.

Aurrekoari dagokionez, aipatu behar da duela gutxi onetsitako *EiTB Taldearen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planeko (2019-2022)* jarduketa-ildoetan zenbait ekintza jasotzen direla Giza Baliabideen Zuzendaritzak EiTBko gizonen eta emakumeen arteko soldata-berdintasuna zaintzeko.

- Generoaren arabera bereizitako plantilla-datuen adierazleen kalkulua sistematizatzea eta automatizatzea, Berdintasunerako Planaren agintetaula elikatzeke, eta txostenak egitea eta aldiari-aldiari informazioa ematea, indarrean dagoen legeriaren eta hartutako beste konpromiso batzuen arabera.
- Datu-baseetako informazioa egituratzeko baliatutako kategoriak berrelikatzea, datuak ustiatu ahal izateko indarrean dagoen legeria (soldata-arrakalari buruzkoa) betetzeko.
- Soldata-arrakalaren bilakaera monitorizatzea eta inpaktu-faktoreak sakonago aztertzea, neurri zuzentzaileak proposatu ahal izateko.

Administrazio Kontseiluaren ordainsaria

2019an Administrazio Kontseilua hemeretzi pertsonak osatzen zuten: zortzi emakumek eta hamaika gizonek gehi zuzendari nagusiak (emakumea). 2019ko ekitaldian, Administrazio Kontseiluak 100.277 euroko zenbatekoa sortu du, soldata, dieta eta bileretara joateagatik izandako joan-etorrien gastuengatik. Kontseilua osatzen duten pertsonen aplikatzen zaizkien baldintza ekonomikoak homogeneoak dira bi generoetarako:

- Ezarritako hileko ordainsari finko gordina, aplikatu behar denean, 467,39 eurokoa da.
- Saio bakoitzera joateagatik dieta 194,54 eurokoa da.
- 2019ko joan-etorrien gastuak 2.629,60 eurokoak izan dira.

5. Pertsonen Ardatza

Lanaren antolamendua

Urteko lanaldia eta lan-denboraren antolaketa EITBren sozietateetan indarrean dauden lau hitzarmen kolektiboetan jasotzen dira. Hitzarmen horietan, lan-txandak, ordu-tarteak eta lanaldiaren antolaketarekin lotutako gainerako gaiak egituratzen dira.

Ikus-entzunezko baliabideen izaera espezifikoa dela eta, Zuzendaritzak zerbitzuaren beharrei erantzuteko aplikatu ditzakeen zenbait malgutasun-neurri aurreikusten dira hitzarmenetan. Neurri horiek ordutegi-prestasunari, txanda irregularreko lanaldiei eta abarri dagozkien, eta bakoitzak bere soldata-osagarria dauka. Plangintzaren ataletik – Giza Baliabideen Sailaren mendeko atala da– pertsona bakoitzari lanaldirik egokiena esleitzen zaio, bere prestasunaren eta indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan horri buruz ezarritako baldintzen arabera. Lehen aipatutako neurriei esker, behin-behineko kontratazioa murriztea lortu da.

Enpresen jardueren izaera kontuan hartuta, eta bereziki ETBn, nahitaezkoa da ordutegien antolamenduak, banaketak eta aplikazioak lan zehatzen arretak eskatzen dituen malgutasuna eta mugikortasuna erraztea, lan horiek aldakorrek baitira, eta ez beti aurreikusteko modukoak. Honako ordutegi-modalitate hauek ezarri dira:

- Lanaldi zatitua
- Lanaldi jarraitua
- Astebeteko lanaldi trinkoa
- Lau eguneko lanaldia (ETBn bakarrik)
- Laneko ordu-tarteen lanaldia (ETBn bakarrik)

ETBn, ordutegien modalitateek aldaketak izaten dituzten kasuetan, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboaren 18. artikuluan ezarritakoaren bidez arautzen da ordutegien eta lanaldien malgutasuna. Era berean, txanda irregularrak, lan bereziak eta abar dituzten pertsonentzat eta ordutegi-prestasunak dituztenentzat (1., 2. eta 3. mailakoak), lotutako osagarriak ezartzen dira, eta horiek denbora libre bihur daitezke, enplegatuak hala eskatuz gero.



5. Pertsonen Ardatza

Familia eta lana kontziliatzeko neurriak

Sozietateetan indarrean dauden hitzarmen kolektiboek hainbat neurri jasotzen dituzte, familia eta lana kontziliatzeko errazteko eta bi gurasoen jarduera erantzunkidea sustatzeko helburua dutenak. Ildo horretatik ezarritako neurriak antzekoak dira Taldeko hitzarmen guztietan.

2019an, 134 pertsonak hartu zituzten kontziliazio-neurriak; 93 emakumeak izan ziren, hau da, guztizkoaren % 69. 2018an, 147 pertsonak hartu zituzten (112 emakumek, % 76). Beraz, egiazta daiteke EiTbN kontziliazioak batez ere emakumeen esku egoten jarraitzen duela, gizartean oro har gertatzen den moduan.

Neurri ohikoenak hauek dira: seme-alabak zaintzeko lanaldia murriztea, arrazoi beragatik eszedentzia hartzea, jaiotzagatiko bajak (amatasuna/aitatasuna) eta edoskitze-baimena. Aitzitik, mendekotasuna duten beste familiarteko batzuk zaintzeko eszedentziek eta lanaldi-murrizketek eragin txikiagoa dute; nolahi ere, horietako gehienak ere emakumeek baliatzen dituzte.

Kontziliazio-neurriak	Emakumeak		Gizonak		Guztira	
	Nº	%	Nº	%	Nº	%
Bularreko haurra zaintzeko baimena	4	4,30	5	12,20	9	6,72
Jaiotzagatiko baja (amatasuna/aitatasuna)	15	16,13	15	36,59	30	22,39
Seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa	44	47,31	16	39,02	60	44,78
Familiartekoak zaintzeko lanaldi-murrizketa	3	3,23	4	9,76	7	5,22
Seme-alabak zaintzeko eszedentzia	21	22,58	0	0	21	15,67
Familiartekoak zaintzeko eszedentzia	6	6,45	1	2,44	7	5,22
Total	93	100,00	41	100,00	134	100,00

5. Pertsonen Ardatza

2019an kontziliazioaren arloan lortutako mugarrietako bat izan da EiTbko sozietateetan lortutako akordioa, hitzarmen kolektiboetan jasotako lizentzia ordainduak egun naturaletatik lanegunetara pasatzeko. Hitzarmenen idazkera hizkuntza inklusibora eta familia-errealitate berrietara egokitzeaz gain, zenbait artikulutan ezkontza-ahaidetasuneko familiartekoei ere luzatu zaizkie lizentziak, familiaren erantzunkidetasuna sustatzeko.

Halaber, 2019an akordio bat lortu da ordaindutako lizentzien erregulazioari dagokionez, hitzarmenaren erregulazioa egungo gizarte-errealitatera eta auzitegiek ezartzen dituzten jurisprudenzia-irizpideetara egokituta, familia eta lana hobeto uztartzeko xedearekin. Koadro honetan, Taldearen hitzarmenaren hobekuntzak zehazten dira.

EiTbren hitzarmenak hobetzea

	EiTbren hitzarmenak	Aplikatu beharreko legeria
Ezkontza edo elkarbizitza	20 egun natural	15 egun natural. Ez dago elkarbizitzagatik baimenik
Ezkontidearen, bikotekidearen edo seme-alabaren heriotza	5 lanegun	2 egun. Ez da sartzen bikotekidea
Ezkontidearen, bikotekidearen edo seme-alabaren gaixotasun larria (lehen gradua)	5 lanegun	2 egun
Odol-ahaidetasuneko hirugarren mailarainoko familia-ezkontza	1 egun natural	Ez dago
Ohiko etxebizitza aldatzea	2 egun natural	1 egun
Medikuarengana joatea	Beharrezkoa den denbora, Gizarte Segurantzakoa bada	Jaio aurreko azterketetarako eta erditzea prestatzeko bakarrik
Lehen mailako odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko familiartekoa laguntzeko medikuarengana joatea	Behar den denbora (berreskuragarria)	Ez dago

Segurtasuna eta osasuna

EiTB Taldearen lantokien kokapenak eta egindako eragiketen izaerak ez dakarte osasunerako arrisku nabarmenik, eta, beraz, ez dago gaixotasun profesionalen eragin edo arrisku handiko lanposturik. Bestalde, EiTBk eremu geografiko jakin batzuetako informazioaren berri ematen du, arrisku handirik ez dakarten eremuetako korrespontsalia-zerbitzuen bidez.

Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan, EiTBk laneko arriskuen prebentziorako politika bat du, osasuna modu egokian babesten dela bermatzeko. 2019an, indartu egin da Giza Baliabideen Zuzendaritzak zuzenean kudeatzen duen Laneko Arriskuen eta Osasunaren Prebentzio Zerbitzua, eta bi koordinazio-rol esleitu dira Bilboko egoitzetarako, Gasteizko egoitzetarako eta korrespontsalietarako, bai eta Miramongo egoitzetarako ere.

Era berean, Laneko Arriskuen eta Osasunaren Prebentzio Zerbitzuak modulu espezifiko bat garatu du Zero Paper kudeaketa-sistemaren baitan (paperik gabeko kudeaketa). Modulu horrek aukera ematen du laneko istripuak eta gorabeherak ikertzeko, norbera babesteko ekipamenduak entregatu eta kontrolatzeko, laneko arriskuei, produktu kimikoei, fitxa operatiboiei eta larrialdi-neuriei buruzko informazioa zabaltzeko, eta, *Ikasgunearen* bidez, EiTBko plataforma birtualaren bidez, aurrez egindako prebentzio-diagnostikoaren arabera beharrezkoa den laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prestakuntza kudeatzeko.

2019an, baja eragin duten bederatzi lan-istripu gertatu dira guztira, eta ez da laneko gaixotasun-kasurik erregistratu. Baja eragin duten lan-istripuen eta kontingentzia arrunten ondoriozko absentismo-orduak 97.349 izan dira; horietatik 53.676 emakumei dagozkie, eta 43.673 gizoni.

Taula honetan, 2017, 2018 eta 2019ko lan-istripuei buruzko kudeaketa-adierazle nagusiak agertzen dira, batez beste⁸:

	2017	2018	2019
Laneko gaixotasunen tasa	0,00	0,00	0,00
Baja eragin duten istripuen tasa¹	1,27	1,13	1,09
Emakumeak	0,28	0,56	1,88
Gizonak	2,07	1,57	0,44
Galdutako egunen tasa²	46,87	19,88	23,71
Emakumeak	0,56	9,29	46,80
Gizonak	84,74	28,34	4,84
Hildakoak	0,00	0,00	0,00
Absentismo-tasa³	8.022	7.516	7.292
Emakumeak	8.803	9.121	8.940
Gizonak	11.924	10.068	9.602
Larritasun-indizea⁴	0,23	0,10	0,12
Emakumeak	0,00	0,05	0,23
Gizonak	0,42	0,14	0,02
Maiztasun-indizea⁵	6,33	5,63	5,44
Emakumeak	1,41	2,82	9,41
Gizonak	10,36	7,87	2,20

8. Adierazleak kalkulatzeko, GRI G3.1 Adierazleen Protokoloan ezarritako irizpideak erabili dira:

(1) $200.000 \times \text{baja eragin duten istripuen kopurua} / \text{Taldeko plantillak lan egindako orduen kopurua}$.

(2) $200.000 \times \text{bajagatik (istripua edo gaixotasuna) galdutako egunen kopurua} / \text{Taldeko plantillak lan egindako orduen kopurua}$.

(3) $200.000 \times \text{bajagatik (istripua edo gaixotasuna) galdutako egunen kopurua} / \text{Taldeko plantillak lan egindako egunen kopurua}$.

(4) $\text{Bajadun lanaldian izandako istripuen kopurua} / \text{taldeko plantillak lan egindako orduen kopurua} \times 1.000.000$.

(5) $\text{Lanaldian izandako istripuak eragindako baja-egunen kopurua} / \text{Taldeko plantillak lan egindako orduen kopurua} \times 1.000$.

5. Pertsonen Ardatza

Osasunaren zaintza eta medikuntza asistentziala

EiTBk osasuna zaintzeko aldizkako azterketa medikoak eskaintzen dizkio plantilla osoari. Gainera, 2005. urteaz geroztik, Laneko Arriskuen eta Osasunaren Prebentzio Zerbitzuak osasun-zerbitzu asistentzialaren bidez koordinatzen ditu azterketa ginekologiko osagarriak, eta 40 urtetik gorako langileei eskatzen die azterketa horiek egiteko, Osakidetza (Euskal Osasun Zerbitzuak) estaltzen ez duen adin-tartea osatzeko.

Halaber, taldeak beste laguntza mota batzuk ere eskaintzen ditu, hala nola azterketa otorrinolaringologikoak, esfortzu-probak eta kontsulta psikologikoa; Bilboko eta Donostiako zentroetan medikuntza asistentziala (medikua eta erizaina) ere eskaintzen du.



5. Pertsonen Ardatza

Elkarrizketa soziala eta negoziazio kolektiboa laneko osasunaren eta segurtasunaren arloan

Segurtasun eta Osasun Batzordeek Laneko Arriskuen Prebentzio Planak eta Laneko Arriskuen eta Osasunaren Prebentzio Zerbitzuak egindako memoriak aztertu eta partekatzen dituzte. Era berean, segurtasunaren eta osasunaren arloan ezarritako ekintza guztien berri ematen zaie Segurtasun eta Osasun Batzordeei, eta, hala dagokionean, prebentzio-ordezkarizendatutako pertsonen ere bai, neurketak, ikuskapenak eta ikerketak eginez ekintzak ezartzen parte hartzen dutenei, hain zuzen.

Sozietate bakoitzak bere Segurtasun eta Osasun Batzordea du. Batzorde bakoitzak bere sozietateko enplegatuen % 100 ordezkatzen du.

Taldeko sozietateen hitzarmen kolektiboek segurtasunaren eta osasunaren arloan formalizatutako akordioetako batzuk jasotzen dituzte, Segurtasun eta Osasun Batzordearen akteaz gainera.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren 31/95 Legean xedatutakoa betez, Segurtasun eta Osasun Batzordeek deialdiak egiten dituzte hiru hilean behin.

Deialdietan jorratutako eta adostutako gaiak jasotzen dituzten aktak erakunde independente batek egiaztatuko ditu urtero, dagokion urteko auditoretzaren esparruan (OHSAS 18000), EITB Taldearen prebentzio-jarduera osatzen duten gainerako elementuekin batera.

Auditoretza egiterakoan, gutxienez taldeko sozietate bakoitzeko prebentzio-ordezkarik bat elkarrizketatuko da. EITBren lan-arriskuen prebentzio-sistemaren indarguneetako bat, auditoretza-enpresaren iritziaren arabera, *Zero Paper* kudeaketa-sistemaren barruan garatutako prebentzio-modulua da, gardentasuna eta moldakortasuna eskaintzen dituen.

Elkarrizketa soziala eta lan-harremanak

Langileen lege-ordezkaritzarekiko komunikazioa eta negoziazio kolektiboa funtsezkoak izan dira akordioak lortu ahal izateko. Bilerak hiru hilean behin egiten dira, gutxienez, Taldeko sozietateetako eta Herri-erakundearen zuzendaritzaren eta enpresa-batzordeen artean.

2019an hainbat akordio lortu dira, hala nola ETBko hitzarmen bategina sinatzea artikuluen zati batzuk berrituta. Bestalde, lanaldiari buruzko akordio bat lortu da Eusko Irratian, Eitbneten hitzarmen kolektiboa negoziatu da, eta akordio onak lortu dira; EITBn ere aurrerapausoak egin dira.

Giza Baliabideen Zuzendaritzaren beste jarduketa-ildo bat izan da komunikazioa eta kohesioa sustatzea zuzendaritza-taldearen mailan. Helburu horrekin, informazio-bilerak egin dira plantillarekin, kontratazioaren esparruan dagoen testuingurua azaltzeko. Komunikazio-ildo hori garatzean, *Gunea* izeneko eremu bat zehaztu da, EITB Taldeko enplegatuek Giza Baliabideei egindako eskaerak eta kontsultak helarazteko eta bideratzeko. Eremu hori 2020. urtean zehar zabalduko da.

5. Pertsonen Ardatza

Prestakuntza eta garapen profesionala

Gizataldearen prestakuntza eta garapena balioa sortzeko prozesuaren funtsezko elementuak dira. EITBk neurritan egindako prestakuntza-planak egiten ditu urtero, prestakuntzaren, integrazioaren, garapen profesionalaren eta itxaropen pertsonalen arloetako beharrak asetzera bideratuta.

2019an, Prestakuntza-atalak, Izan Ongi ekimenaren bidez, pertsonen laneko ongizatea hobetzeko hainbat prestakuntza-praktika ezarri ditu, kudeaketa emozionalarekin lotutako alderdiak azpimarratuz. Gainera, prestakuntzarako onura sozialak eskaintzen zaizkie profesionalei, hala nola prestakuntza-programetan izena emateko dirulaguntzak eta seme-alabentzako ikasketa-bekak.

Gizarte-onura horietarako 27.994,31 euro eta 16.928,76 euro erabili ziren 2019an, hurrenez hurren.

Bestalde, 2019an zehar Prestakuntza-atalak gauzatutako prestakuntza-proiektu guztiak metodologia parte-hartzailean oinarrituta garatu dira. Horren adibide argia da EITBko lanbideak eta lanpostuak deskribatzeko *Design Thinking* teknikan oinarrituta diseinatutako eta garatutako metodologia parte-hartzailea.

Azkenik, nabarmendu behar da sozietate guztietako Prestakuntza-batzordeek – Prestakuntza-atala buru dutela– dauden lanpostuetarako behar diren titulazio akademikoak eguneratzeko dokumentu bat landu eta adosteko egindako lana. Lan parte-hartzaile horren emaitza hitzarmen kolektiboan gaur egun dauden sarrera-betekizunak ordeztuko ditu.




5. Pertsonen Ardatza

Prestakuntza-orduak


2019an, 9.905 prestakuntza-ordu guztira EiTbN. Grafikoan, erantzukizun profesionalaren arabera emandako prestakuntza-orduen kopurua xehatuta agertzen da. Ikusten denez, profesionalena da ordu gehien dituen maila

Halaber, hurrengo grafikoan pertsona bakoitzak emandako prestakuntza-orduen batezbestekoa erakusten da, erantzukizun profesionalaren eta generoaren arabera banakatuta. Ildo horretatik, prestakuntza-orduen batezbestekorik altuena Zuzendariordetzako/Buruzagitzetako erantzukizunen mailako emakumeena izan da. Erantzukizun profesionalaren gainerako mailetan ez dago alde nabarmenik bi generoen artean.

Egindako prestakuntza-orduak, lanbide-kategoriaren arabera



Egindako prestakuntza-orduak, lanbide-kategoriaren arabera



8,38
prestakuntza-ordu
pertsona bakoitzeko

Aniztasuna eta berdintasuna

EiTBk aukera-berdintasunaren aldeko konpromiso sendoa du, eta aniztasuna, inklusioa, gardentasuna, berdintasuna, diskriminaziorik eza... nagusi diren testuinguruak bultzatzen ditu.

2011n, Genero-berdintasunerako lehen Plana onetsi zen, eta 2019an [Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana](#), erakundeak esparru horretan jarduteko lau urterako dituen lehentasunak biltzen dituena. Aurreko planak bezala, zeharkakoa da; beraz, identifikatutako helburuek enpresako ia atal guztiei eragiten diete, eta haien arduradunei dagokie plan horiek abian jartzea. EiTBko Berdintasun Batzordea da Berdintasun Plana kudeatzeko eta bultzatzeko erantzukizuna duen organoa, eta Zuzendaritzak eta sozietate guztien ordezkaritza sozialak osatzen dute.

EiTB Taldearen Berdintasun Planek lege-garapenei erantzuten diete. Onetsitako planak euskal sektore publikorako erakunde-gidalerroak garatzen ditu, Emakunderen (Emakumearen Euskal Erakundea) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planetik datozenak. EiTBren plan bakoitza alde aurreko egoeraren diagnostiko baten ondoren diseinatu da, Emakundek markatutako jarraibideen arabera.

Urte hauetan, berdintasunaren arloan ekintzak garatzeko eta ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren oinarriak eta egiturak definitzera eta modelatzera bideratutako jarduketa-ildoak lehenetsi dira. Hirugarren Planak helburuen progresioari eusten dio, aurretik hasitako ekintzak finkatuz; izan ere, aktibatu diren ekintzak eraginkorrak izan badira finkatu eta mantendu egin behar dira.

El Hirugarren planaren diseinuak faktore hauek hartu zituen kontuan:

- **Estrategia eta politikak:** nola zehazten den EiTBren estrategian eta kulturen erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin duen konpromisoa.
- **Pertsonen kudeaketa:** emakumeek eta gizonek EiTB osoan eta talde profesional bakoitzean duten presentziaren oreka aztertzea; eta langileek aukera-berdintasuna bermatzen duten lan-baldintzak ote dituzten aztertzea.
- **Berdintasunari buruzko pertzepzioa:** EiTBren genero-berdintasunari dagokionez iritziari eta pertzepzioari buruzko azterlana. Ildo horretatik, hainbat barne- nahiz kanpo-azterlan egin dira; 2019ko apirilean, plantilla osoari zuzendutako inkesta bat egin zen, eta, gainera, modu ezohikoan, EiTBren Erreforma Integrala egiteko Legebiltzarreko Ponentziaren jarduketa-esparruaren barruko azterlan soziologiko batzuk egin dira.
- **Edukiak:** EiTB Taldearen eduki guztietan genero-ikuspegia zeharka aplikatzera bideratutako ekintzak aztertzea.

5. Pertsonen Ardatza

Genero-berdintasunaren adierazleak

Erakundeak berdintasunarekin duen konpromisoaren erakusgarri da, halaber, pertsonen buruzko datu-baseetan genero-aldagaia biltzea. Izan ere, EiTBk langileei buruzko adierazleak jaso, aztertu eta jakinarazteko bere sistemak garatzen ditu, genero-ikuspegia aplikatuta.



Hizkera inklusiboaren erabilera

EiTB pixkanaka txertatzen ari da hizkuntza inklusiboa berak sortutako erakunde- eta komunikazio-dokumentu ugarietan – barnekoetan nahiz publikoetan –, gizonen eta emakumeen ikusgaitasuna ekartzeko.

Izan ere, hizkera inklusiboaren erabilera ere islatu da ETBren hitzarmenean, maskulinoa generiko gisa erabiltzea saihestuz. Bestalde, nabarmendu behar da “sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren” ekintzak eta jokabideak falta astun edo oso astun gisa sartu direla hitzarmenean, dagokien zehapen-araubidearekin. Azkenik, aipatu behar da berrikuspen horren esparruan familia-eredu berriak ere sartu direla.

2019an, Edukien Batzordetik sortutako diziplina anitzeko lantalde baten ekarpenari esker, “EiTB Taldeko gaztelaniazko kanaletan hizkera inklusiboa erabiltzeko gida” definitu eta zabaldu da EiTB Taldeko profesionalen artean.

Sexu-jazarpenaren aurkako protokoloa

Pertsonen duintasuna errespetatzearen eta pertsonen eskubideak babestearen printzipioa kontuan hartuta, EiTBk, prebentzioz, zero tolerantziaren protokoloa du sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko portaeren aurrean, baita zuzeneko diskriminazioaren bat dakarten portaeren aurrean ere.

EiTBk sexu-jazarpenarekin eta sexuan oinarritutako jazarpenarekin lotutako alderdiak sartu ditu 2019an egin duen arrisku psikosozialen azterketan.

5. Pertsonen Ardatza

Desgaitasuna

EiTB Taldeko zentro guztiek (Bilbo, Gasteiz, Miramon eta Iruñea) betetzen dute desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasun-araudia. Desgaitasuna duten pertsonen enplegurako eta irisgarritasun unibertsalerako Taldeak hartutako neurriei dagokienez, adierazi behar da Enplegu-deialdi Publikoetan erreserba-ehuneko bat ezartzen dela. Hala ere, lanpostuak hutsik geratzen badira, Enplegu-zentro Bereziekin egindako hitzarmenen bidez beteko dira lanpostu horiek.

Hezkuntza-harremanak


Prestakuntza-itunak eta bekak

Gazteen prestakuntza akademikoa eta laneratzea errazteko, EiTBk hitzarmenak egin ohi ditu unibertsitateekin eta ikastetxeekin.

2019ko ikasturtean, 124 pertsonak parte hartu dute EiTBn hezkuntza-lankidetzako beketan, prestakuntza dualeko beketan eta lantokietako prestakuntza-beketan. 124 pertsona horietatik, 93 gradu-profilekoak dira, eta gainerako 31k Lanbide Heziketako profilekoak.

EiTBk euskal ikastetxeekiko aliantzei eusten die, eta partaide gisa sendotzen ari da ezagutza praktikoa eta ikasleak mundu profesionalera gehiago hurbiltzea bultzatzeko helburu bateratuan. Era berean, euskal ikasleen talentuaz elikatzen da, eta gizarteari itzultzen dio pertsona horiek Taldetik igarotzean eskuratzen duten ezagutza praktikoaren potentziala.

2019an, Taldeak 27 ikastetxe itunduren lankidetzan izan du EiTBrekin bekak eta prestakuntza-praktikak egiteko: parte-hartzaileen gogobetetzea 9,5 (tutoreak) eta 9,9 (bekadunak) mailetara iritsi zen 1etik 10era bitarteko eskalan.



5. Pertsonen Ardatza

“UNITALENT - EiTb” sariak/bekak

EiTbren, ikus-entzunezko sektorearen eta unibertsitateen (UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitatea) arteko lankidetzaproiektu honen helburua talentua identifikatzea eta bereganatzea da, bai eta talentua telebistarako proiektuen sorkuntzan eta ekoizpenean garatzea ere.

Sariak praktiketako prestakuntza-beka ordainduak izango dira, hautatutako proiektuen egileentzat, eta ETBrako programak ekoizten ari diren ikus-entzunezko enpresetan egingo dira.

APPLIKA (EiTb – UPV/EHU)

Ikerketa-proiektu hau Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan aurkeztu da, Universidad – Sociedad 2017 (US17/40) programaren barruan, eta 2017-2020 aldian garatu da. Aplikaprogramaren helburua da unibertsitateko ikasleen ikus-entzunezko kontsumoa aztertzea, baita ondorengo ikus-entzunezko eduki berrien diseinuan eta sorkuntzan aplikatzea ere.

2019ko udaberrian, IKUSIKER ikerketapanela sortu zen, EHUKo 800 ikasle inguruk osatua, gazteen artean gailentzen den ikus-entzunezko kontsumoa ikertzeko. Ikerketa horren emaitzak hainbat txostenetan argitaratu dira (eta hainbat hizkuntzatan: euskara, gaztelania eta ingelesa) <https://ikusiker.eus/> webgunean, eta hitzaldi, kongresu eta foro akademiko eta profesionaletan zabaltzeko dira, Euskadin, Espainiako Estatuan eta nazioartean.

UPV/EHU-EiTb Multimedia Komunikazioa Masterra

EiTb Taldeak eta [Euskal Herriko Unibertsitateak](#) urtero antolatzen dute [UPV/EHU-EiTb Multimedia Komunikazioa Masterra](#).

Euskarazko graduondoko hau multimedien espezializatutako irakaskuntza eskatzen duten gradudun edo lizentziadun berriei eta – komunikabideetan lan egin arren– birziklatu nahi dutenei edo etengabeko prestakuntza eskatzen duten profesionalei zuzenduta dago. Urtebete irauten du, klase teoriko nahiz praktikoko ordainduak eskaintzen ditu, eta EiTbko profesionalek ematen dute, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleekin batera.

Herriarren ardatza

EiTBk zerbitzu publikoaren eginkizuna betetzen du, eta tokiko komunitateei arreta eskaintzen die.



Herriarrak

EiTBren ustez, komunikabide publiko baten sendotasunaren funtsezko alderdi bat gizartearekin garatzen duen harremanean oinarritzen da.

Horregatik, EiTB hainbat gizarte-eragilerekin harremanetan jarri da 2019an, gizarte aurreratu eta kohesionatu bat sustatzeko, pluraltasuna eta aniztasuna errespetatuz.

Erakunde mailan, Komunikazio Taldeak harremanak izan ditu Eusko Jaurlaritzarekin, Eusko Legebiltzarrekin, Nafarroako Gobernuarekin, Euskal Hirigune Elkargoarekin, Foru Aldundiekin eta hiriburuetako Udalekin.

Funtsezko zerbitzu publiko gisa gizarte-ekarpena egiteko eta herritarrekin harreman eraginkorra eta etengabea izateko, EiTBk hainbat ezaugarri eta adierazle garatzen ditu, esate baterako:

- **Audientzia.** [CIES](#) eta antzeko erakunde independenteen bidez aldian-aldian neurtzen diren kontaktuen kuantifikazioaren bidez aztertzen da neurketa, telebista eta irratiko 24 orduko eguneroko audientzia osoa, telebista eta irratiko albistegi eta gaurkotasun-programetakoa, eta euskarazko telebista eta irratiko programetakoa. Bestalde, [OJD](#)k egunero eta hilero ikuskatzen ditu Espainiako Interneteko erabiltzaile bakar guztiak, baita [eitb.eus](#)en kontsumoa ere.

- **Zerbitzu Publikoaren atributuak.** Atributuak neurtzen dira EiTBk sustatutako irudi- eta marka-azterlanaren bidez. EiTBren irudiaren eta markaren posizioa eta eskaintzen dituen edukiei lotutako atributu nagusiak neurtzen ditu.
- [EiTB sortzeko 5/1982 Legeak](#) ezartzen duen funtsezko **Zerbitzu Publikoaren Misioaren Betetze-maila**. Maila hori berariaz zehazten da 2016-2019 aldirako EiTBra Programakontratuak ezartzen dituen misioetan. Ekitaldi bakoitzean, Programakontratuaren Betearazpenari buruzko txosten bat dago, EiTBk eta Eusko Jaurlaritzak osatutako Jarraipen Organoak egindako ebaluazioarekin.



EiTB MARATOIA

EiTBk urtero antolatzen du EiTB Maratoia, gaixotasun larrietara bideratutako gizarte-proiektu solidario handiena, gaixo horiei ikusgarritasuna emateko, gizartea gaixotasun horiei buruz sentsibilizatzeko eta elkartasunari dei egiteko.

20. EiTB MARATOIA

2019an, haurren minbiziaren aurkako EiTB Maratoia antolatu zen, eta herritarrek, erakundeek eta alkateek bat egin zuten 'Lau teilatu'-ren beren bertsioarekin. Oraingoan, EiTB Maratoiak 1.600 bertsio baino gehiago erregistratu zituen, eta **100.000 pertsona** inguruk parte hartu zuten Lau Teilatu abestiaren bertsiorik onena kantatzeko. Ekimenaren emaitza gisa, **1.285.657 euroko** errekorra lortu zen; dirua haurren minbiziari buruz ikertzerako bideratuko da.

Komunitatearekiko harremana

Ikus-entzunezkoen mundua, berez, oso erakargarria da. EiTBren instalazioak espazio erakargarriak dira: telebistan ikusten diren edo irrati bidez entzuten diren profesionalak eta pertsonaiek igurikimen handia sortzen dute. Horregatik, herritarrekiko harremanetarako lau ekintza-ildo garatzen ditu EiTBk:

1. Programetan parte hartzeko bideak irekitzea sare sozialen, telefonoaren, posta elektronikoaren eta beste bitarteko batzuen bidez, bai eta herritarren parte-hartzeari ikusgarritasuna ematea ere.
2. Herritarrei EiTBren instalazioak bisitatzeko aukera ematea, bisita gidatuak antolatuz eta programetan publiko gisa parte hartuz.
3. Aurrez aurreko jarduerak eta ekitaldiak antolatzea euskal geografian zehar.
4. Bezeroari entzutea, eskaeretarako, kontsultetarako eta kexetarako harremanetarako eta arretarako hainbat mekanismo ezarri.



Komunitatearekiko harremana



EiTB Gastroshow

EiTBk antolatutako ekitaldi gastronomiko handi honetan, sukaldari ospetsuek, ETBko aurkezle batzuek eta Euskadi Irratiko, Radio Euskadiko eta Radio Vitoriako kolaboratzaileek parte hartu zuten. Jon Gomezek aurkeztu zuen. Gastroshow ekitaldian hamar sukaldarik errezeta bat prestatu zuten, 5 taldetan banatuta. Sarrera libre zen, eta arrakasta handia izan zuen ikuskizun gastronomikoak. Gainera, babesleek antolatutako hainbat zozketatan parte hartu ahal izan zuten parte-hartzaileek, eta, gainera, Pintxo Solidarioa dastatu ahal izan zuten; horrekin bildutako dirua EiTB MARATOIRA bideratu zen.

BBK Live

EiTB Taldeak lankidetzeta-hitzarmena dauka Bilbao BBK Live jaialdiaren antolatzaileekin, euskal kultura eta musika zabaltzen laguntzen eragileak diren aldetik. BBK Live Europako jaialdirik garrantzitsuenetako bat da gaur egun. Gaztea irrtiaren bidez – ekitaldiko irrti ofiziala – gauzatzen du EiTBk bere presentzia Kobetamendin. Horrez gain, 2019ko Gaztea Maketa Lehiaketaren irabazlea ere sartzan da jaialdiaren programazioan. Aurtengo edizioaren amaieran 100 herrialde baino gehiagotatik etorritako 112.800 pertsonak parte hartu dute (iturria: Last Tour).



Go!azen

Gazteentzako telesail hau benetako gizarte-fenomeno bihurtu da, pantailaz haraindi iritsi dena: bere *app* propio arrakastatsua, diskoak, liburuak eta antzezlanak edukitzeaz gain, gazteengana iristeko bide bihurtu da, hari esker erakundeek sentsibilizazio sozialeko kanpainak egiteko eta euskararen erabilera gazteen artean sustatzeko aukera dutelako. Telesailaren gidoiak eta tramak gizartearen aniztasun osoa islatzen saiatzen dira, gazteei interesatzen zaizkien gaiak jorratuz eta gaurkotasunari oso atxikita dauden balioak defendatuz, hala nola kolektibo homosexualaren normalizazioa, transexualitatea, haurren minbizia, genero-berdintasuna edo eskola-jazarpena.

5. Pertsonen Ardatza

Herritarren bisitak eta parte-hartzea

Bigarren ekintza-ildoari dagokionez, EiTb ezagutu ahal izan duten 32.000 pertsona baino gehiago jaso ditu Taldeak 2019an, Bilbon, Donostian eta Gasteizen dituen instalazioetan. Pertsona horiek artista gonbidatu gisa nahiz bisitari gisa joan dira platoetara, bisita gidatueta parte hartu dute, edo ikusle gisa joan telebista-programetara. Esperientzia gogobetetze-balio bikainekin baloratu dute guztiek.

	2017	2018	2019
Bisita gidatueta parte hartutako pertsonak	7.741	6.962	7.570
Programetako gonbidatuak eta artistak	9.729	9.339	9.327
Bertako programa-ikusleak	18.684	14.997	15.680
EKITALDIA GUZTIRA	36.154	31.298	32.577



Legebiltzarreko Ponentzia

Herritarrei ahotsa emateko, EiTBen historia osoko gizarte-azterlan garrantzitsuena egin da 2019an; horri esker, informazio zehatza, pribilegiatua eta oso fidagarria lortu da euskal gizarteak EiTbri buruz duen pertzepzioaz.

Azterlan hori EiTBen erreforma integrala egiteko Legebiltzarreko Ponentziak onetsitako ekimen batetik dator, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eta azterlan soziologikoetan adituak diren hainbat herri-erakunde eta erakunde pribaturen lankidetzarekin gauzatu da: "EiTBen Erreforma Proiektua. Ikuspegi parte-hartzailea. Tailerrak eta dinamikak".

Proiektuak metodologia parte-hartzailea eta diziplina anitzeko ikuspegia du, eta eragile sozial, politiko, kultural eta ekonomikoen lankidetzarekin egin da, bai eta ikus-entzunezkoen sektorearen eta prozesuan parte hartu duten EiTbko langileen lankidetzarekin ere.

Inkesta euskal herritarrekin partekatu da, eta bost gai-multzo nagusi jorratu dira: zerbitzu publikoa eta edukiak; gobernantza eta ordezkariak; antolamendua eta finantzaketa; hizkuntza-normalizazioa; eta genero-ikuspegia.

Proiektua hiru fasetan banatu da, eta bi urtetan garatu. Behin betiko ondorioak 2019ko irailean aurkeztu dira, eta Taldearen materialtasunari buruzko azterketa egiteko balio izan du.

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA
Azterlan kualitatiboa eta inkesta kuantitatiboa sortzea.	Ikus-entzunezkoen sektoreko, elkarte-sareko eta herritarren ardatzeko hiru tailer parte-hartzaile.	Barneko tailer parte-hartzaileak eta online inkesta EiTbko plantillari, Euskaliten lankidetzarekin.
Lehenengoa 7 eztabaida-talderen inguruan antolatu zen, eta EiTbko hedabideetako bat maiz edo noizean behin kontsumitzen zuten 56 pertsonak osatu zuten.	Guztira 100 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten, eta parte-hartze publikoa ere egon zen, ADDI eta Irekia plataformen bidez. Plataforma horietan, adinaren, okupazioaren, generoaren, lurraldearen eta hizkuntzaren arabera kuotak ezarri ziren, ordezkagarritasuna bermatzeko hautaketa-irizpide gisa.	EiTBen Bilboko, Miramongo eta Gasteizko egoitzetako 78 pertsonak parte hartu zuten. Online inkesta plantilla osoari bidali zitzaion, galdetegi baten bidez. Plantillako langileen % 40k erantzun zion barne-plataforman (Tortolika) kargatutako galdetegiari (2019ko maiatzaren 16tik ekainaren 3ra arte egon da irekita, biak barne).
Galdeketa kuantitatiboak 2.313 pertsonako lagina bildu zuen, eta "67. Euskal Soziometroa - Hedabideak - EiTb" soziometroaren bidez egin zen.		

6. Herritarren Ardatza

Enpresa-foroak

EiTBk eragile sozial, biziberritzaile eta garatzailea izan nahi du, euskal enpresa-sarearekin konprometitua eta esperientziak trukatzeko aukera ematen duena. Horretarako, EiTBk harreman sendoa eta konprometitua du enpresa-elkarteekin eta topaguneekin, kudeaketaren bikaintasuna sustatzen jarraitzeko.

Berrikuntzaren aldeko apustuaren baitan, EiTBk aliantzak ditu HbbTv telebista konektaturako estandar berriarekin lanean jarduten duten foroekin, hala nola telebista publiko eta pribatu guztiek parte hartzen duten Irratidifusoreen Foroarekin.

Irrati Telebista Autonomikoen Erakunde Federazioan (FORTA) ere parte hartzen du, baita Telebistako Zientzia eta Arteen Akademian ere.



EUSKALIT, Kalitaterako Euskal Fundazioa, kudeaketan hobekuntza eta berrikuntza sustatzeko.



Q-EPEA, kudeaketan eta enpresa-esperientzien trukean bikaintasuna bilatzeko konpromisoa duen Euskal Erakunde Publikoen sarea



IZAITE, Iraunkortasunaren, Garapen Iraunkorraren eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren aldeko Euskal Enpresen Elkarte.



Innobasque irabazi-asmorik gabeko eta onura publikoko elkarte pribatua da, eta Euskadiren eremu guztietan berritzailea den gizarte bateranzko transformazio-prozesua bultzatzeko, dinamizatzeko eta monitorizatzeko sortu zen.



EiTBk parte-hartze aktiboa du ikus-entzunezkoen sektorearen garapenean, **Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterraren (Eiken)** parte da, eta erakunde gisa ere parte hartzen du.

6. Herritarren Ardatza

Irabazi-asmorik gabeko fundazio eta erakundeentzako ekarpenak

Irabazi-asmorik gabeko fundazio eta erakundeentzako ekarpenak egiteko hainbat formula daude EiTb Taldean. Ekarpen horien balorazioa, diru-terminoetan eta ezarritako kontratuetan oinarrituta, 853.717 eurokoa da. Hauek izan dira onuradunak:

Artium Museoa, San Telmo Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Guggenheim-Bilbao Museoa, Euskadi Kirola Fundazioa, Musika Hamabostaldia, Euskadiko Orkestra, Donostiako Zinemaldia, EHIGE, Euskal Herriko Ikastolak, Mondragon Korporazioa, UNICEF, Tabakalera, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Elkarte- edo babesletza-ekintzei buruzko informazioa

Komunikazio-enpresa garen aldetik, laguntza ematen diegu gizarte-ospea edo komunikabideetan eragina izatea behar duten elkarte, erakunde eta antolakundeei, beren kabuz ordainpeko publizitate-plangintzarik egin ezin dutenean. Halako trukeak, izan ere, EiTbren Gizarte Erantzukizunaren esparruan kokatzen dira.

62 truke-kontratu egin ziren 2018an, eta 83 truke-kontratu, berriz, 2019an.



6. Herritarren Ardatza

Sariak eta aintzatespenak

Zilarrezko antena sariak: Dani Álvarez, Klaudio Landa, Gaztea, EitB Maratoia eta emakumeen pilota ETB1en saritu zituen Euskadiko Irrati eta Telebistako Profesionalen Elkarteak.

FesTVa saria: Ander Gonzálezek eta Gabriela Uriartek aurkeztutako 'A Bocados' sukaldaritza-programak jaso zuen jaialdiko sari berezietako bat.

Telebista Akademiaren Iris saria: 'La Víctima Número 8' telesailak Fikzio Zuzendaritza Onenaren saria lortu zuen.

2019ko Euskal Kazetaritza Saria: Olatz Arrieta EitBko berriemaileak Euskal Kazetarien Elkartearen (AVP- EKE) eta Kazetarien Euskal Elkargoaren (CVP- KEE) saria jaso zuen.

Bizkaia Sarean sariak: Bizkaired elkarteak Maite Iturbe EitBko zuzendari nagusiari eman zion saria, Gizarteratzea kategorian.

Irrati-profesional onenaren saria: Radio Euskadiko Eva Caballero kazetariak -'La Mecánica del Caracol' programaren arduradunak- jaso zuen saria; Carlos III Osasun Institutuko Investén-isciii ikerketa-taldeak eman zion.

ATRAE sariak: Odei Esnaolak, '¡Qué Me Estás Contando!' programako berriemaileak, jaso zuen saria, Euskadiko turismoari eta bertako enpresei ematen dien ikusgarritasunagatik.

Rikardo Arregi ohorezko saria: Iñaki Elorza kazetariak jaso zuen ohorezko saria, eta Kanaldude WebTV eta Ttap aldizkari digitala izan ziren irabazleak euskarazko kazetaritzarako erreferentzia-sarien edizio berrian.

Grünenthal Fundazioak Radio Vitoria saritu du. Pilar Ruiz de Larreak Minaren Egunean egindako estalduragatik jaso zuen saria.

2019ko EuroBasque Kazetaritza Saria: Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluaren Elkarteak Ane Irazabal saritu zuen 'Awlad-Hesiak gainditu' dokumentalarengatik.

2019ko Zilarrezko Gehitu Saria: Gehitu elkarteak Urko Aristi saritu zuen EitBko bere ibilbidean zehar LGTBI+ kolektiboarekiko erakutsi zuen "konpromisoagatik eta jarreragatik".



Giza Eskubideak

Sortu zenetik, EiTB herriarren informazio eta parte-hartze politikorako tresna nagusi gisa konfiguratu zen, eta berdintasunaren eta aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoaren printzipioekiko errespetua bermatzen du.

EiTBk aipatzen du bere Estilo Liburuan hedabide guztietan beti onartuko, defendatuko eta sustatuko direla Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta ondorengo araudietan –eta bereziki UNESCOk landutako Kazetaritzako Etika Profesionalaren Nazioarteko Printzipioetan– jasotako eskubide guztiak. EiTBren [Erredakzio Estatutuak](#) aitortzen duenez, gainera, zuzenbide-estatu demokratikoaren prozedurekin arautzen da, adierazpen-askatasunerako eta egiazko informazioa jasotzeko eskubideak errespetatuz.

Informazio-zerbitzu publikoa den aldetik, Erredakzio Estatutuak ezartzen du EiTBk herriarrei eskainiko dien informazioak oinarri hauek izan behar dituela: gertaerak egiazko izatea, iturri guztiak kontsultatzea, inolako manipulaziorik ez onartzea, eta UNESCOk, Europako Kontseiluak eta Kazetarien Nazioarteko Federazioak landutako kazetaritzako etika profesionalaren printzipioak errespetatzea. Horretarako, bi Erredakzio Kontseilu ditu EiTBk, 17 kazetari ordezkari osatuak, 2018ko apirilaren 27ko hauteskundeetan bi urtetarako hautatuak.



Euskararen Ardatza

EiTB euskarazko ikus-entzunezko komunikazioaren eskaintza nagusia da, eta entretenimendua, informazioa, eztabaida, ikuskizuna eta dibulgazioa eskaintzen ditu euskaraz.



Euskera

Hezkuntza-sistema, administrazioa eta komunikabideak dira euskararen normalizazioaren hiru zutabe nagusiak.

Izan ere, euskara EiTbren misioaren ardatzetako bat da, EiTb sortzeko Legeak, ondorengo Programa-kontratuek eta plan estrategikoek islatzen duten bezala. Eta hori guztia beti hizkuntzaren normalizazioan inplikaturik dauden beste eragile eta erakundeekin lankidetzan.

Bere misioari dagokionez, EiTbK gure hizkuntzan egindako eztabaida eta parte-hartze soziala errazten du, euskarazko kanalen bidez. Bestalde, euskararen, euskal kulturaren eta euskaldunen mundua zabaltzen du, gaztelaniazko kanalen bidez. Batzuetan nahiz besteetan, EiTbK hasieratik hartu du konpromisoa emozio eta balio positiboak lotzeko euskarazko komunikazioarekin.

Aro digitalean, euskal gizarteak komunikazio-modu berriak behar ditu, eta EiTbK konpromiso sendoa hartu du egoera berrira egokitzeko. Hala, irrati eta telebista tradizionalei, webguneari eta nahieran plataformari hainbat aplikazio (*app*) gehitu zaizkie azken urteotan, ikus-entzunezko produktuak erabiltzaileen eskura jartzeko.


Edukien eskaintzarekin batera, EiTb Taldearen esperientzia eskaintzen die beren ibilbide profesionala euskaraz egin nahi duten komunikatzaileei.

Halaber, euskararen erabilera sustatzen du lehen lekuri ez zuen komunikazio-arloetan, eta hizkuntzaren ezagutza-maila desberdinetara egokituta.



Dimentsioak

EiTBk aurrerapausoa egin du, eta, euskararen arloan dagokion misioaz gain, konpromiso gehigarria hartu du bost dimentsio zehatzetan.



7. Euskararen Ardatza

Gazteen aisialdia

EiTB da euskarazko aisialdiaren hornitzaile nagusia, gazteentzako aisialdiko jarduerak sustatzen eta horietan parte hartzen duelako.

Helburu nagusi bat euskara entretenimenduari eta denbora librearekin lotzea da, eta gazteentzako aisialdiko jardueretan presente egotea. Taldeak hainbat proiektu egin ditu gazteak EITBren inplikatzeko.

EiTBk benetan sinesten du irratia, entzuteaz gain, ikusi eta bizi ere egin behar dela. Premisa horretatik abiatuta, hainbat ekitaldi antolatu ditu Gazteak, hala nola urteroko maketa-lehiaketa (Bizkaiko Sua taldeak irabazi du maketa-lehiaketa 2019an), Gaztea Dantzan (Comfort Inn Ending izan da irabazlea) eta hainbat kontzertu urtean zehar – Bilboko Aste Nagusia, Imagin Gaztea EiTB Jaian eta Durangoko Azokan–.

Horrez gain, film laburren proiektuen Oihua! lehiaketa bultzatzen lagundu du Gazteak, Donostiako Fantasiatzako eta Beldurrezko Zinemaren Astearen barruan.

Era berean, eduki digitalen eskaintza zabaltzen jarraitu du irratia: aurtengo podcastak egiten hasi da, gaur egungo musikari buruzko erreportajeekin; lehenik irratia bidez emititzen dira, eta ondoren sare sozialetan argitaratzen dira.



7. Euskararen Ardatza

Komunikazio Eskola

Ekimen honen helburua da euskarazko komunikazioaren hurrengo belaunaldiak osatuko dituzten pertsonak aurkitzea eta trebatzea.


EiTBk aukera paregabea eskaintzen die prestatzen ari diren komunikatzaileei EiTBko eguneroko jardueran parte hartzeko (ETB, EI Donostia eta Eitbnet), eta ezagutza teorikoak lantzeko eta islatzeko EiTBko hedabideetan eta metodoetan gidatzen dituzten profesionalekin batera.

Aldi horretan EiTBn trebatutako komunikatzaileak hainbat erakunde eta enpresatan lan egiten duten profesional bihurtu dira.

Aldi horretan EiTBn trebatutako pertsonak Komunikazioaren profesional bihurtu dira, eta hainbat erakunde eta enpresatan lan egiten dute:

- Herri-erakundeetan,
- EiTBn bertan, eta Euskal Herriko edo beste lurralde batzuetako komunikabideetan,
- Gure inguruneko enpresetako komunikazio-sailetan, edo
- Startup eta gizarte-ekimen askotako sare sozialetan.

Euskarazko praktikak EiTBn



Erredakzioetan 76 pertsona egon dira praktketan; horietako 49 kazetaritzatik datoz, 26 ikus-entzunezko komunikaziotik eta 1 komunikazio multimediako masterretik.

7. Euskararen Ardatza


Publizitatea

Euskadi Irratiak eta Euskal Telebistak publizitate-mezu ugari zabaltzen dituzte egunero, eta hizkuntza aldetik beste edozein irrati edo telebista-kanaletakoak bezain eraginkorrak dira. EiTbko Zuzendaritza Komertzialak eta Euskara Zerbitzuak hala izan dadin zaintzen dute, bai bezeroaren gogobetetzeari begira, bai hizkuntzaren prestigioari begira.


EiTbko inbertsio handia egin du azken urteetan publizitatea euskarara itzultzeko iragarlearentzako inolako kosturik gabe. Inbertsio horri esker, euskarazko publizitatearen pertzepzio positiboa sortu da, bai enpresen aldetik, bai EiTbren audientziaren aldetik.

EiTbko doan eskaintzen die euskarazko iragarkien bikoizketa iragarle guztiei. Horrela, iragarleak euskal gizarte osora iristeko aukera du: ETB1 eta ETB3, euskaraz.

Euskararen presentzia EiTbN



Publizitate-iragarkiak bikoizteko inbertsioa



Fake newsak
Gezurrak
Clickbaitak
Desinformazioa besterik ez dabilen honetan
Deepfakeak
Polarizazioa
Fact-checka
Egiaztatzaileak
Postegia

Kazetaritza inoiz baino beharrezkoagoa da.

 **Informazioan liderra**

7. Euskararen Ardatza

Komunitatea

EiTBk hainbat foro eskaintzen dizkie euskaldunei, elkartzeko, komunikatzeko eta loturak ezartzeko.

Prestakuntza-proiektuak

Taldeak akordioak egin ditu bekak eta prestakuntza duala emateko lanbide-heziketako ikastetxeekin eta unibertsitateekin, bai eta UPV/EHU – EiTB komunikazio-masterrarekin ere.

Sare sozialak

EiTB oso aktiboa da sare sozialetan, eta Twitterren eta Instagramen dituen euskarazko kontuen bidez komunitate euskaldunaren dimentsio birtuala indartzen du.

Kultura- eta hizkuntza-elkarteak

EiTBk lankidetzak-hitzarmenak sinatu ditu euskara eta euskal kultura sustatzeko esparruko elkarteekin, hala nola Durangoko Liburu eta Disko Azoka, Tokikom eta Euskaltzaindia.

Teknologia berriak

Vicomtechen bidez, EiTBk bi plataforma garatu ditu euskarazko produktuak audientzia berrietara hurbiltzeko, desgaitasuna duten pertsonak eta euskara gutxiago dakitenak barne. Batua, euskara/gaztelania itzultzaile automatikoa, eta Idazle, azpigitulatzailer automatikoa euskararako eta gaztelaniarako.

Gunea

Ikastolen Elkartearekin sinatutako hitzarmenaren bidez, EiTB ikastolen aldeko jai guztietan dago presente: Herri Urrats, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Kilometroak eta Nafarroa Oinez.

Komunitate
harremana

7. Euskararen Ardatza

Euskara lantzen

EiTB oso garrantzitsua da euskara kodetzen eta lantzen.

EiTB Taldeko erredakzio-, gidoi-, aurkezpen- eta lokuzio-arloetako langile guztiek *Euskara Zerbitzua* erabiltzen dute. Zerbitzuak hizkuntza-gaiei buruz aholkatzen, orientatzen eta erantzuten du egunero. Horren emaitza gisa, hainbat material sortu dira (ohar gramatikalak, glosarioak eta erabiltzeko gomendioak), eta aipatutako talde profesionalen artean banatzeaz gain, EiTBren hizkuntza-baliabideetan ere sartu dira. Esate baterako, HIKEA datu-base lexiko-terminologikoa: EiTBren intranetean eta webgunean kontsulta daiteke.

EiTBko hizkuntzalarien eta komunikazio-profesionalen elkarlanaren ondorioz, euskara batuan idatzitako testu-bolumen handia sortzen da. Testu horiek, Euskaltzaindiarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmen baten bidez, Euskaltzaindiaren Lexikoaren Behatokiaren corpusean sartzen dira. Halaber, EiTBko Euskara Zerbitzuko buruak aditu gisa parte hartzen du Eusko Jaurlaritzako Terminologia Batzordean.

Askotariko gidoiak sartu dira corpus horretan 2019an; gerora, kontuan hartuko dira euskara estandarraren bilakaera aztertu eta erabakitzeko. Besteak beste, "Go!azen" gazteentzako telesailaren bosgarren denboraldia eta "Merlí" telesailaren bigarren eta hirugarren denboraldiak corpuseratu dira. Itzulitako filmen gidoiak –jatorrizko nahiz itzulitakoak– artean, aipatzekoa da *Another Day of Life*, 2019an animaziozko film onenaren Goya saria, besteak beste, irabazi zuena.

Mugarriak

- 2019ko maiatzean, Asier Larrinagak, EiTBko Euskara Zerbitzuko buruak, Euskal Telebistak euskararen normalizazioari egindako ekarpenari buruzko doktore-tesia defendatu zuen, "Euskal Telebistaren sorrera, garapena eta funtzioa euskararen normalizazioaren testuinguruan" izenburupean, UPV/EHUko Komunikazio Fakultatean. Ikerketa akademikoak EiTBk euskara batuaren ahozko normalizazioari egiten dion ekarpenaz dihardu.
- 2019ko abenduan, Itziar Azpeitiak, ETBko edukien profesionalak, "Beyond negativity on television entertainment: positive perspectives and research on its contribution to public television" doktore-tesia defendatu zuen; tesian sakon aztertzen da ETB1eko euskarazko entretenimenduaren funtzioa.
- Bi ikerketek cum laude kalifikazioa lortu zuten, eta mundu profesionalean eta akademikoan eztabaidagai diren bi eztabaida-alderdi argitu zituzten.

Euskadi Munduan Ardatza




Nazioarteko proiektzioa

Amerikan EiTb marka Canal Vasco gisa ezagutzen da; European ETB Sat gisa.

Bi kanalak, tradizioz, satellite bidez emititzen ziren, euskal komunitateetara hurbiltzeko; horregatik, programazio espezifiko bat eskaintzen zen, euskarazko eta gaztelaniazko programekin. 2000. urteaz geroztik, eitb.eus webgune berrituaren bidez ere ikus daiteke Canal Vasco, eta Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria eta Gaztea irratiak entzun ere bai. Horiekin bat egin dute EiTb Musika eta EiTb Euskal Kantak musika-kateek eta Euskadi Irratia +, Radio Euskadi + y Radio Vitoria + noizbehinkako emisioek. Beraz, EiTbko kanalak Internet bidez zuzenean ikus eta entzun daitezke mundu osoan.

Gaur egun, EiTbren nazioarteko estrategiak ETB1 eta ETB2 kanalak ikusteko eta Taldearen irratiak entzuteko aukera ematen duten telebista-fabrikatzaile nagusien aplikazioak biltzen ditu. Gainera, Android eta iOS sistemetarako EiTb dituen aplikazioak (EiTb, Gaztea, HIRU3 eta Go!azen) ere nabarmendu behar dira. Era berean, munduko edozein lekutatik sar daiteke EiTbren kanaletan mugikorren, tabletan eta telebisten bidez, eta EiTbren edukiak zuzenean nahiz grabatuta ikus daitezke, nahieran zerbitzuari esker.



8. Euskadi Munduan Ardatza

Eduki digitala eta streaminga

EiTBk lau aplikazio (edo app) ditu. Lehenengoa, EiTB, orokorra da, eta euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak ditu; beste hirurak, berriz, gazteentzat eta haurrentzat dira, euskara hutsean: Gaztea, HIRU3 eta Go!azen.

EiTBren orotariko aplikazioak gaurkotasuna eta entretenimendua bateratzen ditu. Telebista-emisioa zuzenean ikusteko eta irratiak 24 orduz online entzuteko aukera ematen die erabiltzaileei.

Gaztea gazteentzako aplikazioa da, eta HIRU3, berriz, txikienei eta beren gurasoei zuzendutakoa. Aplikazio berriena, Go!azen, 2017ko amaieran atera zen argitara, ETB1eko telesail arrakastatsuaren laugarren denboraldia hastearekin batera.

Berrikuntza gisa, HIRU3 haurrentzako atariak bere kanala estreinatu du udazkenean Youtuben, EiTBren kanalaren hamargarren urteurrenean.

Izan ere, EiTB Taldeak 465.000 harpidedun baino gehiago ditu Youtuben, bere programa nagusien bideoak argitaratzen ditu bertan, eta bideo horiek 10 milioi bistaratze baino gehiago izan dituzte. Era berean, irratiek iTunes, Tunein, iVoox, Radioplayer, Spotify eta horrelako plataformetan argitaratzen dituzte beren audioak eta erreproduktio-zerrendak.

Plataforma bidezko deskargak

		
	100.000	50.000
	50.000	13.000
	10.000	7.000
	10.000	9.000

Iturria: Plataformak.

7. Euskararen Ardatza

Euskal zinema

Ikus-entzunezkoen euskal sektorearekiko koprodukzioa

EiTBk 5.739.004 euroko inbertsioa egin du 12 film luze, 19 film labur, eta 9 dokumental eta telesail ekoizteko. Zinema-produkzioa oso nabarmena izan da 2019an.

Esate baterako, Zinemaldiaren 67. edizioan parte hartu zuten 12 filmek EiTBren partaidetza izan zuten. Aipatzekoa da, besteak beste, *La trinchera infinita* filma, 2 sari jaso baitzituen: zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra eta gidoirik onenaren Epaimahaiaren saria.

EiTBren galan, bestalde, *Una ventana al mar* aurkeztu zen. Era berean, *El hoyo* filma saritu zuten Torontoko Nazioarteko Zinema Jaialdian eta Sitgesekoan, eta *O que arde* ere Cannesen saritu zuten. Azkenik, aipatzekoak dira film hauek Goya sarietarako lortutako 27 hautagaitzak: *La trinchera infinita* (15), *O que arde* (4), *Ventajas de viajar en tren* (4), *El hoyo* (3) eta *Elcano y Magallanes. La primera vuelta al mundo* (1).

EiTBren partaidetza zuten izenburu hauek ere 2019an estreinatu ziren, besteak beste: *Soinujolearen semea*, *Margolaria*, *El silencio de la ciudad blanca*, *El doble más quince* eta *Orkestra lurterra* filmak; *'Ihesaldia'* eta *'Golazen 6.0'* telesailak; eta hainbat dokumental, hala nola *Pumori*, *Mendiaren alaba*, *Bai, bagara!*, *Las 11 de Bilbao*, *Itziarren semeak* eta *Gladys del Estal*. *Cielo y balas de plomo*.

Aipagarria da, halaber, Raúl de la Fuente zuzendariaren *Un día más con Vida* filma: animazio-film onenaren saria lortu zuen Europako Zinema Akademiak emandako European Film Awards sarietan, bai eta 2019ko animazio-film onenaren Goya saria ere.



Audientziei buruzko txosten orokorra



2016an egin zitzaizen azken inkesta Euskaditik kanpoko ikus-entzuleei. Garai hartan, Canal Vasco/ETB Sat hamar milioi etxe baino gehiagotara iristen zen Amerikako kontinentean eta Europan. Jarraitzaile gehienak Hego Amerikan zeuden, eta horietako % 71k kable-operadoreen bidez jasotzen zuten seinalea. Zabalkunderik handiena Argentinan egiten zen; ondoren zetozen Uruguai, Kolonbia eta Peru. Gainera, etxe askotan jasotzen zen Canal Vasco/ETB Sat Venezuelan, Txilen, Mexikon, Costa Rican, Panaman eta AEBn.

Nazioarteko kanalaren beste jarraitzaile batzuek ETB Hispasat satelitearen bidez ikusten zuten (% 10), edo eitb.eus webguneari eta beste atari digital batzuei esker jarraitzen zituzten emisioak (% 18). Europari dagokionez, Canal Vasco/ETB Sat Espainian jarduten zuten teleoperadore guztietan zegoen, baita Frantziako hiru garrantzitsuenetan ere.

Erabiltzaileak eta bisitak

Datuek berretsi egiten dute lehen sei hilekoaren prebalentzia bigarrenarekiko eta 2019ko audientziaren igoera 2018koarekiko.

Sartzeko erabilitako gailuari dagokionez, *smartphone*ak gero eta pisu handiagoa du; tableta eta mahaiko ordenagailua, berriz, aurreko urteko antzeko kopuruetan mantentzen dira.



Sare sozialak


EiTBk duela hamarkada bat sare sozialetarako definitu zituen lau helburu nagusiek indarrean jarraitzen dute gaur egun. Helburu banaezinak dira; bestela esanda, sare sozialetako ekintza bakoitzak hirurak bete behar ditu, eta 2020an beste bat gehituko zaie: EiTBra beste bide batzuetatik iristen ez diren erabiltzaileekin konektatzen saiatzea.

- **Marka zabaltzea eta indartzea.** Internautek une oro EiTB eta bere kateak eta programak kontuan hartzea, eta, horrela, kanalak eta irratiak erabil ditzaten lortzea.
- **Interakzioa sustatzea.** Sare sozialek audientziarekiko komunikazio bizkorra ezartzeko aukera ematen dute. Haiei esker, jakin dezakegu zer esaten den EiTBri buruz, esate baterako. Arreta jarri behar zaio espazio honi, eta benetako *feedbacka* lortu behar da markaren eta jarraitzaileen artean.

- **Entzuleak sareko euskarri-edukira erakartzea.** Sare sozialei esker, trafiko handiagoa lor daiteke eitb.eus-en, eta erabiltzaileak, gainera, informazio gehiago aurkituko du bertara eraman duen edukari edo programari buruz. Beraz, programa indartuta aterako da, eta erabiltzailea pozik egongo da Interneten izandako esperientziarekin.
- **Gaur egun iritsezinak diren erabiltzaileekin beste bide batzuetatik konektatzea.** Sare sozialen bidez, oraintxe bertan EiTBren hedabideak kontsumitzen ez dituen publikoarengana irits daiteke.

Sare sozialen kudeaketaren ondorioz, komunitate nagusietako EiTBren sare sozialetako jarraitzaileak bi milioitik gora izan dira 2019an, 2018an baino 1,7 milioi gehiago.

Sare sozialetatik eitb.eus-era iristen diren bisitei dagokienez, hilean milioi bat bisita baino gehiago izan dira 2019an.



Etorkizuneko estrategia eta helburuak

Gaur egun, eitb.eus-en bisiten % 75 mugikorren bidez iristen dira. 2020an, eitb.eus-ek bertsio mugikorra hobetzen jarraituko du, eduki guztiak modu argi eta bizkorrean eskaintzeko, orrien karga eta edukien bilaketaren bizkortasuna lehenetsiz.

Horrez gain, *EiTB komunitatea* martxan jarriko da. "Nireitb" proiektuak, izan ere, internauten parte-hartzea sustatu nahi du, erregistratzeko aukera eta erabiltzailearen profilaren edizioa barne, eta, horrela, argazkiak eta bideoak eitb.eus-era igotzea erraztu. Une honetan dagoen komunitaterik garrantzitsuenak *Eguraldiaren* (eguraldiaren iragarpena) inguruan dihardu: jarraitzaileek Euskal Herri osoko irudiak bidaltzen dituzte askotan, eta eitb.eus-en, Nahieran zerbitzuan (eskabideko telebista), eta telebistan Eguraldiari eskainitako tartean ikus daitezke. Fabrikatzaile garrantzitsuenen Smart TV aplikazioetan ere iratiak entzun eta argazkiak ikus daitezke, HbbTV duten gailuetan bezala.

EiTBren webguneak, halaber, berrikuntzak izango ditu nahierako zerbitzuan. EiTB Nahieran zerbitzua modu naturalean integratuko da eitb.eus-en, eta internautek errazago ikusi ahal izango dituzte beren gustuko programak.

Mugikorretarako aplikazioen plataformei dagokienez, bi app berri sortuko dira, EiTBren egungoa ordezkatzeko dutenak. Egungo aplikazioan, gaurkotasuneko eta entretenimenduko edukiak batera eskaintzen dira; berrietan, aldiz, edukiak bereizita eskainiko dira, eta erabiltzaileek zer nahi duten hautatu ahal izango dute: informazioa, informazioaren aldetik garrantzitsuak diren gertakariei buruzko zuzeneko *streaminga*, minutuz minutuko gertaeren kontaketa, irratiko nahiz telebistako zati edo programa osoak ikusi, edo online emisioak jarraitu.

Eitb.eus-en, izan ere, ETB1, ETB2, eta ETBSat zuzenean ikus daitezke, eta Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Gaztea, EiTB Musika eta EiTB Euskal Kantak iratiak entzun, baita Internetarako Euskadi Irratia+, Radio Euskadi+ eta Radio Vitoria+ noizbehinkako emisioak eta ekitaldi puntualak ere, hala nola *Naukas* edo *Passion For Knowledge* dibulgazio zientifikoari buruzko hitzaldiak. Era berean, zerbitzu berehalakoagoa eman nahi zaio erabiltzaileari, eskubidedun edukiak nahieran eskuragarri jarri emititzen hasten den unetik bertatik. HbbTV eta Android TV eta telebista-fabrikatzaile nagusien aplikazioen kasuan, erabiltzailearen esperientzia hobetuko da, eta edukietarako sarbidea erraztuko da.

Ingurumenaren Ardatza

Ingurumena funtsezko alderdia da EiT Bren kudeaketan eta estrategian: plan estrategikoan ingurumena errespetatzea eta zaintzea funtsezko balioztat jotzen da bere hedabide guztien bidez zabaltzen dituen edukien barruan.



9. Ingurumenaren Ardatza

Ingurumena

Era berean, [Hedabideen adierazpena klima aldaketaren aurrean](#) delakoak erronka berri bat planteatzen du erakundearentzat eta sektore osoarentzat. Orientazio horrek ekintza zehatzak eta kontuak emateko mekanismoak eskatzen ditu, eta EiTbN horiek guztiak gauzatzen dira 2019-2022 aldirako EiTb Taldearen Ingurumena Hobetzeko Planean eta ISO14001:2015 nazioarteko arauaren arabera Bilboko lantokirako ziurtatutako kudeaketa-sisteman.

EiTbren ingurumen-politikak kudeaketa-ikuspegia definitzen duten bost konpromiso ezartzen ditu:

Ezarpenari dagokionez, helburu zehatzak ezarri dira, hauek biltzen dituen prozesu baten bidez diseinatuak: testuinguruaren eta alderdi interesdunen ebaluazioa, indarreko legeria eta hartutako beste konpromiso batzuen betetze-mailaren balorazioa, erakundearen aurreko ekitaldiko ingurumenarekiko portaeraren emaitzen egiaztapena (adierazleak, helburuak eta auditoretzak), eta egon litezkeen gorabeheren eta kexen kudeaketa, ingurumen-hobekuntzako sistemari eragin dion gainerakoaz gain.

